

goiena

DEBAGOIENDARROK DIOGUNA



2013-12-16
ASTELEHENA
434. ZENBAKIA
10. URTEA
1,10 EURO
GOIENA.NET
TOKIKOM

Eztabaida, Deskargako bidesariaz

Gai horrek Bildu eta
EAJ hasarrerazi ditu | 5



Antzuolako tramua. | JOSETXO ARANTZABAL

Genero ikuspegitik aztertuko dute
Oñati zelan dagoen eraikita | 10



2014 bukaeran onartuko da
ITEen gaineko arau berria | 2



Gabriel Arestiren bizipenak gaurkotu
zituzten Espaloian | 33



'Lekittarrak' azkarrenak

Santamasetako krosean kuadrillen saria
Bizkaiko kostaldera eraman zuten | 22

Lekeitioko Imanol Goñi irabazlea (eskuman), Xabier Luis Urzelai (ezkerrean), Beñat Arnaiz (atzean) eta Endika Donay. Aurretik, ihes eginda zihoan Ander Okamika (Lekeitio).

JOSETXO ARANTZABAL



Txapela, jabe berriaz, azken agurrekoan. | GARI GARAIALDE: BERTSOZALE ELKARTEA

Ametz Arzallusen burua babestuko du txapelak

Egun osoan erregular jardun
ostean gailendu zen hendaiarra | 29

SINADURAK

- 8 | IÑIGO IÑURRATEGI | 8
- 8 | JON BEREZIBAR
- 14 | ITSASO ERRETOLATZA | 14
- 16 | LIDE OSINAGA
- KATALIN ANTIXIA | 17
- 18 | IGOR OYARBIDE
- IMANOL GALLEGO | 37
- 40 | ITXARO ARTOLA

Gabon hauetan Gaes-ek ilusioz beteko zaitu

R.P.S. Nº 45-56/10.

GAES
Entzumen Zentroak

2x1
promozioa
PILETAN

GAES
Entzumen Zentroak

Barcelona World Race

%15-eko deskontua audifono eta komunikazio sistemetan

Otalora Lizentziatua 18 • Tel.: 943 71 27 93 • **ARRASATE** | Zurradero 10 • Tel.: 943 76 94 55 • **BERGARA**

2014 bukaeran onartuko da ITEen gaineko arau berria

- ▶ Eraikinen azterketa teknikoak nahasmena sortu du
- ▶ Eusko Jaurlaritzak dekretu argitzailea egingo du

LEIRE KORTABARRIA | ARRASATE

Nahasmen handia sortu da Eraikinen Azterketa Teknikoaren (ITE, gaztelaniazko sigletan) inguruan. Eraikinen nola kontserbatuta dauden eta, ondo ez badaude, zer egin behar den jakiteko errebisioa derrigorrezko egiten duen eta epe batzuk zehazten dituen legedia da hori.

Hasteko, Espainiako eta EAeko araudiak daude; bestetik, zurrumurruek zabaldu dira azken hilabeteotan Eusko Jaurlaritzak hasieran ipini ziren epeak luzatu egingo zituela; hirugarrenik, etxebizitzetara eragiten dien Energia Eraginkortasun Ziurtagiriaren derrigortasunarekin batera etorri da, denboran, eta konfusioa sortu du horrek askorengan; eta, azkenik, araudiak dituen ondorio praktikoez zalantzak sortzen dituzte. Izan ere, askotan ITEak etxe-jabeei jakinarazten die etxebizitzak dituen mantenu-akatsak edo hutsuneak, eta horiek konpontzea jabeei dagoen arren, askotariko egoerak sor daitezke eta ez dago beti garbi legeak dioena betearaztea nori egokituko zaion.

Bada, nahasmen hori erabat argitzen ikusteko, 2014 urte bukaera aldera itxoin beharko dugu; horrela aurreratu dugu eraikinen birgaitzen laguntzako Suradesa agentziako arduradunak, Luis Laskurainek. Berak Eusko Jaurlaritzaren egitasmoen berri dauka eta, aditu horrek dioenez, datorren urte bukaera inguruan onartuko du Eusko Jaurlaritzak ITEaren inguruko araudi berria. Helburuetako bat izango da Espainiako eta EAeko araudiak bateratzea eta elkarren arteko kontraesanak ezabatzea. Seguruenik, gaur egungoa baino orokorragoa izango da, Espainiako legearen antzekoa. Espainiako legea EAekoaren gaintik dago, eta hark epe orokor batzuk ezartzen ditu: 50 urte baino gehiago dituzten eraikinen errebisatu behar dire-

la esaten du, eta ez du epemuga jakirik ipintzen. EAeko araudia zehatzagoa da eta, era berean, mugatzaileagoa, epemuga jakin batzuk ipintzen dituelako. Baina epemuga horietako lehena –abenduaren 31– ez dabil betetzen. Luis Laskurainek honakoa dio: "Estatu legearen antzekoagoa izango da Euskadiko araudia".

Oraingo, zigorrik ez

Bien bitartean, iazko abenduaren 15a ezker, oraindik indarrean dago 241/2012 Dekretua. Horren arabera, hainbat epe ezartzen ziren Euskadiko eraikin eta etxebizitza guztiek, antzinatasunaren arabera, ITEa pasatzeko. Lehenengoak 1901. urtea baino lehen eraikitakoak ziren, eta aurtengo abenduaren 31 baino lehen izan behar zuten ITEa eginda. 1901 eta 1940 artean eraikitakoak, 2014ko abenduaren 31 ezartzen zen epemuga gisa; eta 1941 eta 1965 artean egindakoak, 2015ko abenduaren 31. Hortik aurrera, 50 urte betetzen doazen neurrian egin beharko zuten eraikinek lehenengo azterketa teknikoak.

Dekretuak udalen esku uzten zuen zegokien bizilagunei jakinarazteko lana, eta, behin ITEa eginda, txostena Udalarari entregatu behar zioten bizilagunek.

Handik hilabete batzuetara, Jaurlaritzak beste dekretu bat egingo zuela zabaltzen hasi zen, eta horren bidez epeak atzeratu

egingo zituela. Epe berri bat ere aipatu zen: 2018ko abenduaren 31ra atzeratuko litzateke lehenengo epemuga, eta egun horretarako ITEa eginda eta dagokion Udalarari entregatuta izan beharko lukete aurtengo ekainaren 27an 50 urte edo gehiago zuten eraikinek.

Argi dago lehenengo helburua ez dela beteko, 1901 baino lehenagoko eraikin gehienei ez dietelako ITEa egin. Debagoieneko udal arduradunek txosten gutxi, oso gutxi jaso dituzte, baina, dekretu berria noiz etorriko den ez dakitenez, *impasse* baten daude: "Ez gabilta jendea behartzen, baina, era berean, oraingo epeak hor daude eta ezin diegu ez aurkezteko esan; beraz, gu ere zain gaude", esan digu Debagoieneko udal aparejadore batek.

Eusko Jaurlaritzak 2014 bukaeran argitaratzen badu behin betiko araudia, zer gertatuko da bitartean? Bada, epeak indarrean jarraitzen dutela eta, teoriarik behintzat, hainbat etxe-jabek ITEa entregatu beharko luketela datozen hilabeteotan. Dena dela, araudi berria egiten dabilenez, pentsatzeko da Eusko Jaurlaritzak ez duela horren gainean neurririk hartuko ez araudia betearaziko, baldin ez ezbeharren bat gertatzen ez bada; adibidez, eraikin baten aurrealdearen zati bat jausi eta kalteak egin, eraikina gaizki kontserbatuta dagoelako. Horrek arazo larria sor lezake. Baina, horre-



Arrasateko Makatzena auzoko etxebizitza batzuk. Zortzi atarteren birgaitze obrak dagoen

lakorik gertatzen ez den bitartean, iazko dekretuak *aparkatuta* jarraituko du, praktikan behintzat.

Aretxabaletako Udal Hirigintza saileko ordezkariak diotenez, Udalak oraindik ez du erabaki zer egin: "Oso jende gutxi aurkeztu du txostena, baina ez dugu jendea estutu nahi". Aretxabaletako Udala ere Eusko Jaurlaritzaren arau berrituaren zain dago. Bitartean, bihar, martitzena, gai horren gaineko batzarra izatekoak dira. Teorikoki, zenbait aukera izango lituzke udal batek: "Lehenengo, bizilagunei gutuna bidaltzeko aukera dago, ITEa gogora-

razten. Bi hilabeteko epea ematen du legeak hortik aurrera eta, gero, errekerimendua egin dezake Udalak. Orduan ere ez badute ITEa aurkezten, Udalak subsidiarioki egin lezake". Dena dela, hor beste arazo bat etor daiteke: zenbat ITE egin ditzake udal batek? Eta, egitekotan, zenbat eta zeintzuk egin beharko lituzke?

Kontu horientatik, besteak beste, eta dekretu berria egongo dela jakinda, zentzuzkoa dirudi pentsatzeak udalek ez dutela aparteko neurririk hartuko.

Dirulaguntzak, aparte

Litekeena da dekretu horrek ITEa egiteko dirulaguntzak ere arautzea. Momentu honetan, Eusko Jaurlaritzak 1.000 euro eta BEZ kubritzen dituen dirulaguntzak ematen ditu, baina bakarrik egindako ITEaren eraginez obrak egin behar badira. Eusko Jaurlaritzaren arau berriarekin, litekeena da ITEa egiteko dirulaguntza sistema bat ere inauguratzea.

Gaur egun, gauza bat da ITEa egiteko dirulaguntzak –bakarrik horren ondorioz obrak egin behar badira ematen dira–, eta beste bat, birgaitze edo konponketa obrak egiteko dirulaguntzak. Bi gauzak guztiz desberdinak dira, juridikoki. Etorrizuneko arauak bi alderdi horiek bateratzera joko du, hau da, ITEa eta eraikinen konpontzeko obrak. Seguruenik, obrak egiteko, ITEa eginda izatea eskatuko da. Birgaitze obrei dagoenik, esaterako, energia eraginkortasunarekin lotutako obrak egiteko dirua eman du Etxebizitza Sailak: aurrekontuaren %50, gehienez ere 15.000 euro, itzultzeko beharrik gabe.

Irisgarritasuna ziurtatu

Gauzak gehiago nahasteko, ITEaren gaineko arauak dagoeneko badabilta aldatzen. Mikel Altube arkitekto onatiarrak honela argitzen digu: "Azaroaren 17an ITE bat egin

Ez da hain zorrotza izango

2014AN Urte bete barrurako espero da ITEak erregulatzeko dekretu autonomiko berria.

EPEAK Oraingo, lehenengo epemuga –1901 aurretik egindako eraikinendako– abenduaren 31 da, baina ez da betetzen ari, eta erakundeek ere ez dituzte betearazteko neurriak hartu.

NASAIAGOA EAeren arau berria Espainiako legearen antzekoagoa izango da, eta ez oraingo euskal arauden moduko zorrotza.

BERRITASUNAK Orain eranskin baten dauden derrigortasunak zehaztu egingo ditu arau berriak: energia eraginkortasuna eta irisgarritasuna.

DATUA

%32
ETXEBIZITZA

Euskadiko etxebizitzaren %32k 50 urte baino gehiago dute.

ESANAK

"Estatu-legearen antzekoa izango da EAeko araua"

LUIS LASKURAIN
SURADESAKO ARDURADUNA



neko hasiak dira. | JOKIN BEREZIARTUA

bukaerarako, irisgarritasun oztopo guztiak konponduta izan behar dituzte eraikinek, eta irisgarritasun baldintzak bete behar dituzte beste birgaitze obraren bat egin nahi badute. Momentu honetan, euskal dekretuak modu oso orokorrean agintzen du irisgarritasuna eta eraginkortasun energetikoa baloratzea.

Familia-medikua bezalakoa

Eraikinaren ebaluazio bisuala da ITEa, eta egitura, aurrealdea eta estaldura eta, bestetik, saneamendu eta hornikuntza sare orokorrak hartu behar dituzte; eta, azaroaren 19a ezker, eraikina irisgarria den eta energia aldetik eraginkorra den ere ebatzi behar du.

Eraikina ebaluatu eta gero, txostena egin behar du adituak, eta hor azaldu behar du ikusi dituen akats guztiak, larriak zein arinak. Segurtasunari –bizilagunendako eta gainerako herriarrendako–, osasun-egoerari eta apaingarritasunari kasu egin behar die. Antzematzen diren kalteak baloratu eta horiek konpontzeak zenbateko premia duen ere adierazi behar du arkitektoak, eta nola konpondu ere gomendatu behar du.

ITEa egin egin behar da; hori deritzo Mikel Altube arkitekto oñatiarrak. Eta honela azaltzen du ITEa: "Familia-medikua bezalakoa da. Gaixorik zaudenean, medikuarengana zoaz; baina, nahiz eta ondo egon, ez da txarra urtean behin ana-

nua, eta hori bera gaur egun ez zidaten onartuko". Izan ere, azaroaren 19an arauaren eranskinak dagoeneko aldatuta zeuden, eta modu garrantzitsuan, gainera: izen berriekin –Eraikinaren Ebaluazio Txostena–, funtsean gauza bera da, baina bi exijentzia berri

sartzen ditu: eraikinaren efizientzia energetikoa eta irisgarritasuna ere baloratu behar dituzte adituak txostenean.

Baina hori ere behin-behinekoa izango da, 2014ko dekretu berrian gehiago zehaztuko direlako bi aspektu horiek. 2017

Fatxada 'efizientea'

Energia aldetik etxebizitza efizienteagoak eta irisgarriagoak egiteko neurriak badabilta hartzen herriarrendak, pixkana-pixkana bada ere. Eusko Jaurlaritzak aurten emandako dirulaguntza deialdi batera aurkeztu dira Oñatiko eta Bergarako etxebizitza bloke bana. Argazkian agertzen da Oñatiko Errekalde auzoko 31. ataria, bi bloke horiek egin nahi dituzten obraren antzekoak eginda dituenak. Fatxada berriarekin, hiruzpalau gradu irabaziko dituzte bizilagunek. Hau da, kanpoan 0 gradu egiten badu, barruan lehen baino hiruzpalau gehiago egongo ditu, eta kanpoan 30 egiten badu, lehen, beharbada, 25 egongo ziren etxe barruan eta orain 22 inguru egongo dira. Altube Artabe Baquedano Arquitectos enpresak egin ditu obrak.



Errekalde 31. | OIHANA ELORZA

lisa egitea. Era berean, familia-medikuak ez dizu erradiografia bat egingo; arazoren bat ikusten badu, espezialista honengana edo harengana joateko gomendatuko dizu".

Altubek dagoeneko egin ditu ITE batzuk, eta honakoa dio: "Urteetan eta urteetan, hemen ez da eraikinen mantentze egin, baina ez zaio garrantzirik ere eman. Fatxada baten pitzadura bat agertzen bazen, normal-normala iruditzen zitzaigun. Ni orain hasi naiz ITEak egiten eta fatxada batzuk kalea ixteko moduan daude. Zatiaren bat jausten denean, ez baldin badu inor azpian hartu,

oso inportantzia txikia ematen diogu".

Eraikinaren estrukturan ere oso ezuste txarrak hartzen dabil Altube: "Ikusten nabil lehen 25 milimetro eta orain 10 duten burdinak, etxea sostengatzen duten burdinak. Eta ez diogu garrantzirik ematen. Jendeak ez daki arazo horiek daudela, horregatik da hain inportantea ITEa pasatzea".

Lehenago edo geroago, borondatez edo legeak dioelako, etxetxe guztiek bilatu behar dute ITEa egiteko adituren bat, eta etxebizitza segurua eta egokia den jakin.

JOSTAILUAK

2013ko azaroaren 14tik abenduaren 24ra arte

Arrasateko hipermerkatua

EROSKI
zurekin

Musakola 11 ARRASATE
Tel.: 943 71 10 30

©Disney ©Disney/Pixar

Bailarako gaztetxeen jardunaldiak, elkar ezagutu eta elikatzeko modua

Ekintza asko eta askotarikoak egin dituzte Antixena gaztetxean, bailarako gaztetxeen jardunaldietan

M.A | DEBAGOIENA

Debagoieneko gaztetxeen asanblada egin zuten Antixena gaztetxean, egubakoitzean. Han batu ziren Elgetako, Bergarako, Arrasateko eta Oñatiko gaztetxeetako kideak. "Gehiagotan egin behar ditugu halako jardunaldiak. Bailarako beste gaztetxeekin harremanak sendotzeko modu oso ona da" zioten antolatzaileek. Hain justu ere, hori zen helburuetako bat. Esperientziak elkartrukatu eta bata besteari berri izatea. Asanblada, horretara bideratu zuten oinarrian. "Besteek nola lana egiten duten, egitaraua nola

lantzen duten edota gaztetxearen funtzionamenduaz jardun dugu besteak beste", zioen Oier Fernandezek, Antixenako gaztetxeetako kideak. Baina hori bakarrik ez, gai ekonomikoaz ere jardun baitzuten: "Denok ez dugu berdindun funtzionatzen". Bestelako gaiak ere izan zituzten berba, besteak beste, eragin eremua zabaldu eta jende gehiagorengana nola iritsi ere aztertu baitzuten.

Baina, asanbladarekin hasi zena, bestelako ekintzekin bukatu zen. Egubakoitzean bertan, esaterako, Josu Zugasti arrasatearraren monologoaz disfrutatu

ahal izan zuten Antixenan. Zapatu goizean, Aitor Arantzabalen eskutik, Angiolillo anarkista italiarraren gaineko liburua eman zuten ezagutzera. Arratsaldean Joxemi Zumalabe fundazioko kideak izan ziren Oñatin eta domekan mendi irteera eta kontzertuak egon ziren.

Balorazio positiboa

Oñatiko Gaztetxeetako kideek asteburuaren "balorazio positiboa" egin dute: "Bailarako gaztetxeek ez dugu harremanik eta elkarren berri izan eta besteak egiten dutena ezagutzeko balio izan digu".



Debagoieneko gaztetxeetako ordezkariak asanblada, Oñatiko gaztetxean, egubakoitzean. | IMANOL SORIANO

'Gabonak... eta etxean aulki bat hutsik' berbaldia, Gabonez eta doluz berba egiteko

Arantzazuko Asis Topagunean jardunaldi hunkigarriak egin zituzten zapatuan

M.A | DEBAGOIENA

Arantzazuko Asis Topagunean hitzaldi aretoa bete egin da zen zapatu goizean gertuko pertsona bat galdu izanagatik dola prozesuan dauden hainbat herritarrez. Gabonek badute konnotazio berezi bat dola dauten pertsonendako: izan ere, tradizionalki familian igarotzen ditugun festa egun horietan, maite dugun pertsona baten galerak suposatzen duen karga emozionala, oso zaila da eramaten kasu gehienetan. Hori horrela, dola direnei arreta eskaintzen dien Bidegin elkarterko Izaskun Andonegik, dolaaren prozesuez berba egin zuen; dola hori gainditzen laguntzeko aholkuak eman zituen eta ez hori bakarrik, izan ere, dola dagoen pertsona horri laguntzeko gomendioak ere eman zituen. Testigantzen ueña izan zen gogorrenetarikoa bat, emozioek gainezka egin baituzten. Bukaeran, aretoan zegoen Gabo-



Izaskun Andonegi, Bidegin elkarterko kidea. | IMANOL SORIANO

netako zuhaitz baten bertaratu bakoitzak galdutako bere senitatekoaren izena zeraman bolatxoak ipini zintzilikatu zuen. Momentu hori, Amaia Artze biolin jotzaileak lagundu du zuen biolinaz. Senitatekoendako, gogorra izan zen.

Hirugarrenegoz antolatu dute Frantziskotarrek hitzaldi hori: "Oso interesgarria izan dela iritzi dute bertaratuek. Datorren urtean ere antolatzeko bultzada eman digu" zioen Jose Mari Arregi frantziskotarrak bukaeran.



90 urte bete dituzten lau aretxabaletar. | IMANOL SORIANO

90 urte bete dituztenak omendu zituzten Basotxon

Basotxoko zazpi bazkide omendu zituzten egubakoitzean; hiruk ezin izan zuten han egon

M.A | ARETXABALETA

Juana Iregik, Inazio Aranburuzabalak, Migel Osinagak, Brigida Carrascok, Pilar Gabilondok, Juan Arenazak eta Alejandro Zubizarretak aurten bete dituzte 90 urte. Zifra makala ez, eta egubakoitzean omendu egin zituzten Basotxo Erretiratuen Elkartearen. Aipatutako lehenengo laurak izan ziren bertan, besteak ezin izan zuten-eta.

Dantzari, abesbatza...

Bete egin zen erabat Basotxo Erretiratuen Elkartearen 90 urtedunak omentzeko. Lehen lehenik aureskuak dantzatu zieten. Basotxo Abesbatzak lau bat kantu abestu zituen eta ondoren, trikitilariak alaitu zuten giroa Batzuk, animatu ziren dantzara, gainera. Txokolate beroa eta jatekoa ere ez zen falta izan. Arratsalde pasa polita!



Presoen aldeko azokan, zapatuan. | MIREN ARREGI

Presoen aldeko bigarren eskuko azoka, elkartasuna adierazteko

M.A | ARETXABALETA

Presoen aldeko bigarren eskuko azoka egin zuten zapatuan Aretxabaletan. "Presoen elkartasuna adierazteko modu bat da, eta baita herritarrek inplikatzeko ere", zioen Irati Pagoaga antolatzaileak. "Denok ditugu etxean soberan ditugun gauzak, eta horiei prezio simboliko bat ipini diegu. Saldutakoarekin, ekarpen ekonomikoa egiten diegu presoei eta haien senitartekoei" gaineratu zuen.

Aurtengo bigarren azoka izan zen zapatukoa. "Lehenengoa oso arrakastatsua izan zen, gaurkoa ez horrenbeste" zioen Pagoaga. Hala ere, esan bezala, pre-

soei eginiko keinuarekin pozik zeuden antolatzaileak. Aprobetxatu zuten, gainera, Urtarrilaren 11n Bilbon egingo den presoen aldeko manifestaziorako deia egiteko: "Tantaz tanta, itsasoa gara" lelopean Bilbon egingo den manifestaziorako tantak batzen dihardugu Aretxabaletan. Herritarrei argazkiak ateratzen ari gara, Bilbon itsasoa sortu dezagun. Norbanakoekin sortuko dugu-eta, itsasoa" gaineratu zuen Pagoaga.

Ez zen Aretxabaletan zapatuan egin zen elkartasun azoka bakarra izan. Izan ere, Hiruataxek antolatuta, Bidezko Merkataritza azoka egin baitzuten.

Eztabaida Deskargako bidesariaren inguruan

Larraitz Ugartek datuak ezkutatzeari egotzi dio EAJri; jeltzaleek Ugarteri gezurretan aritzea

I.G./T.M. | BERGARA

Deskargako mendatean jarri beharreko bidesaria dela-eta eztabaida sortu da Bilduren eta Eusko Alderdi Jeltzalearen artean. Azpiegitura eta Mugikortasun diputatu Larraitz Ugartek EAJri banketxeekin eginiko hitzarmena ezkutatzeari leporatu die. Aintzane Oiarbidek, EAJko batzar-kideak, gezurretan aritzea leporatu dio Ugarteri.

Ugartek kezka azaldu du

Arkupe bidesari sistema da Foru Aldundiak proposatzen duena. Hau da, kapazitate altuko errepideetan, momentuz behintzat, garraiolariari bidesaria jarriko dien sistema da. Ugartek ardura adierazi du oposizio alderdiek erakutsi duten jarreraren aurrean: "Gipuzkoako Foru Aldundia oso kezkatuta dago. Izan ere bi urte daramatzagu bidesaria dela-eta, bueltaka. Proposamen bat aurkezteko eskatu ziguten eta foru arau proiektua aurkeztu dugu, une honetan Batzar Nagusietan dagoena. Badirudi, baina, oposizio alderdiek atzera botako dutela. Horrek kezkatu egiten gaitu. Izan ere, Arkupe sistema bete ezean, egora zailean egongo gara. Izan ere, aurreko legealdian, Markel Olanok, Bidegiko administrazio kontseiluko buru zela, banketxeekin sinatu zuen Deskargan bidesaria egongo zela 2015eko apirilera. Beraz, Arkupe bidesari sistema ez onartzeak, bankuekin ondorio larriak izatea suposatuko luke. Beraz, EAJ da



Deskargako mendatean egiten dabilzan lanak. | ARGAKILARIAXXX

azalpenak eman behar dituen. Zer da proposatzen duena? Banketxei ez ordaintzea edo Deskargan bidesaria jartzea? Zergatik ezkutatzeari dute eurek banketxeekin sinatu zutela Deskargan bidesaria jartzea? Gainera, banketxeekin sinatu zuten hitzarmena Batzar Nagusietatik pasa gabe eta foru araua egin gabe. Erantzukizunez jokatzeko eskatzen diegu oposizioan dauden alderdiei".

Honakoa ere gaineratu du Gipuzkoako Azpiegitura eta Mugikortasun diputatuak: "Guk ez dugu Deskargan bidesaria jartzeko foru araua egingo. Ez gaudela ados berriro ere debagindarrak

soilik zigortzearekin. Ez du zentzurik bailara honetako herritarrek dohainik duten irteera bakarra ere ordainpekoa izateak. Gainera, Deskargan bost tramu eraiki dira eta horietatik bi bakarrik ordaindu ditu Bidegik bere kredituarekin. Beste hiru tramuak gipuzkoarrok ordaindu ditugu gure zergekin. Beraz, ez da logikoa bidesari bat jartzea, dagoeneko gipuzkoarrok gure zergetatik ordaindu dugun errepide bat erabiltzeagatik".

Ugartek zehaztu digu une honetan Gipuzkoako Foru Aldundia lanean dabilela autoritate finantzarioez eta Ogasun departamentuarekin, besteak beste,

Batzar Nagusietako talde guztiei, komunikabideei eta jendarteari azaltzeko zeintzuk izango diren "Deskargan gauzak gaizki egitearen ondorioak". Aste honetan aurkeztuko dute txostena.

Oiarbideren erantzuna

"Larraitz Ugarte gezurretan ari da. Batzar Nagusietatik pasata dago gai hau eta badaude foru arau ezberdinak oinarri hau babesten dutenak. Gainera, ez da beharrezkoa foru arau zehatz bat egitea Deskargan bidesari bat jartzeko", dio Oiarbidek.

Bestalde, banketxeekin sinatutako hitzarmena dela-eta, honakoa erantzun du: "Banketxeek

berme bat eskatzen dizute diru hori itzuliko duzula ziurtatzeko. Azken batean, etxe bat erosten duzunean ere eskatzen dizute. Hala ere, bankuari zuk esaten badiozu bidesaririk ez duzula jarri behar eta Diputazioko dirua emango diezula, berdin-berdin balio du eta baietz konforme daudela erantzungo dute. Beraz, Larraitz Ugartek bere eskuetan du Deskargan bidesaririk ez jartzea".

Arkupe sistema, berriz, oso konplikatu dela deritzo: "Guk uste dugu oso konplikatu dela eta ez duela bermatzen helburua. Gainera, erabaki politiko bat izan da. Aurreko legealdian bazeuden adostasunak dagoeneko. Etxegarateko bidesariak jarrita egon behar zuen eta kanpoko garraiolariak milaka euro ordainduta izan behar zituzten, baina bi urte eta erdi galdu ditugu. Erabaki politikoa izan da aurreko legealdian adostutakoa kentzea, ez txarra zelako; baizik beste batzuen zelako. Bestalde, bailarakoentzako bilatu daitezke formulak deskontuak egiteko A8an edo APIean egin den bezala, baina guk proposatzen genuen bidesari bat jarri behar zela Deskargan, diru-sarrerak horiek bermatzeko eta Diputazioko beste arloetako aurrekontuak ez ukitzeko".

2015erako eginda

Deskargako mendateko azken zatia (Antzuola eta Bergara artekoa) 2015erako amaituta egongo dela ere aurreikusitako du Ugartek, eta beraz, garaiz ibiliko direla.

110.000 kilo elikagai batu dituzte supermerkatuetan

Elikagai Bankukoak pozik daude kanpainarekin, uste zutena baino gehiago batu dutelako

I.G. | ARRASATE

Elikagaien bilketa egin zuten azaroaren 29an eta 30ean Elikadura Bankukoek eta orain eman dute jakitera zenbat izan zen batutakoa. Pozik azaldu da Jose Antonio Agirrebeina, Bergarako Elikagaien Bankuko arduraduna: "Aurreko urteetan baino gehiago batu dugu, guztira: 110.000 kilo. Egia da, beste batzuetan bi edo hiru supermerkatutan bakarrik jarri izan dugula martxan kanpaina eta aurtun, berriz, 30 denda eta supermerkatutan egin da. Beraz, pentsatzekoa zen gehiago batuko genuela, baina hala ere, espero genuena baino gehiago izan da. Oso pozik gaude".

Agirrebeina batutakoa sailkatzen harrapatu genuen. Izan ere, orain hori gelditzen zaie

egiteko: "Batu dugun guztia sailkatu eta apaletan jarri behar dugu. Horretaz gain, datu guztia informatizatu behar ditugu, ondoren, produktu bakoitzetik zenbat dugun jakiteko".

Bestalde, esan digu Gabonetan ez dutela beste kanpainarik egingo, baina oraindik denda txiki batzuetan badabiltzala elikagaiak batzen, eta beraz, datua aldatu egingo dela.

Beharra duenak zer egin

Elikagaiak jasotzeko beharra duten pertsonak edo familiek euren herriko udaletxera jo behar dutela zehaztu digu Agirrebeinak. Ondoren, bertan datuak hartuko dizkiete eta Udalaren edo GKEen bitartez bideratuko zaie jatekoa.

Fagor Industrialeko langileek aparteko ordainsaria ez kapitalizatzea erabaki dute

Eguenean ez-ohiko batzarrak egin zituzten Fagor Arrasaten eta Industrien

I.G. | ARRASATE

Ez-ohiko batzarrak egin zituzten joan zen asteko egunean Fagor Industrien eta Fagor Arrasaten, Gabonetako aparteko ordainsaria kobratu beharrean, nazioarteko planetara bideratzea erabakitzeke.

Fagor Industrien, ezezkoa

Fagor Industrien ezezkoak irten zuen. Honakoa izan zen bozketa-aren emaitza: 82 baiezkoko, 255 ezezkoko, bederatzi txuri eta baliogabe bat.

Egubakoitzean enpresatik kaleratu zuten prentsa-oharrean honakoa zehazten zen: "Fagor Industrialek aurtengo urtea 2012ko emaitzak hirukoiztuz amaituko du. Horrenbestez, datu horiek 2013-2016rako Plan Estrategikoan batzen diren hazkunde eta heda-

pen helburuei konfiantzaz aurre egitea ahalbidetzen dute. Hori kontuan izanik, eta eginiko batzar ez-ohikoaren ondoren, Fagor Industrialeko bazkideek erabaki dute ez dela beharrezkoa izango Gabonetako aparteko sariaren kapitalizazioa, konpainiak dituen nazioarteko planak babesteko, hasieran hala pentsatu bazen ere".

Bestalde, oharrean zehazten zen azken hiruhilekoan lortutako emaitza onak ahalbidetu dutela enpresak finkatuta dituen planekin aurrera jarraitzea, 2013ko bigarren sei hilekoko aparteko ordainsaria kapitalizatu gabe.

Hainbat datu

Oñatin kokatzen den Fagor Industrial nazioarteko Onnera Group taldeko kide da. Sei herrialdetan

dauden hamar lantegik osatzen dute talde hori eta 1.700 lanpostu dituzte guztira. Fagor Industrialek 450 bazkide ditu. Bere merkatuaren zati handi bat nazioartean kokatzen da eta Mondragoneko enpresak honako sailetan egiten du lan, esaterako: egosketa, ontzi garbiketa, hozketa komertzialak, labeak...

Fagor Arrasaten, baiezkoa

Jakin badakigu, hala baieztatutako digutelako enpresatik bertatik, Fagor Arrasaten ere ez-ohiko batzarra egin zutela egunean gai bera lantzeko. Enpresako ordezkariak harremanetan jarri garen, baina, ez digute argitu nahi izan zein izan zen bozketa-aren emaitza eta gaineratu, gaur, astelehena, omen direla oharra kaleratzekoak.

Udalek eta Mankomunitateak 51 lanpostu eskainiko dituzte

Aldi baterako kontratazioak izango dira, Lanbidek eta Aldundiak lagunduak

LEIRE KORTABARRIA | ARRASATE

Urtarriletik aurrera, udalen eta Debagoieneko Mankomunitatearen artean, 51 lanpostu deialdi egingo dituzte, euren jarduerarekin zerikusia duten arloetako lanak egiteko.

Kontratu horiek Eusko Jaur-laritzak, Lanbideren bitartez, batetik, eta Gipuzkoako Foru Aldundiak, bestetik, finantzatu dituzte, neurri baten; beste zati bat dagokion udalak edo Mankomunitateak ipini beharko du.

Finantzazio partziala

Lanbidek, bere Tokiko Proiektuaren barruan, diruz lagundutako 32 kontratu egiteko aukera eman dio Debagoienari; denetara, 307.000 euro eman dio horretarako. Lanpostu horiek 360.000 euro inguru kostatuko zaizkie Debagoieneko administrazioei. Ebazpena oraingo egunotan jasotzekoak dira, eta aukeraketa urtarrilean hasiko da, dena ondo bidean.

Beste alde batetik, Gipuzkoako Foru Aldundiak kontratu publikoak egiteko bigarren dirulaguntza deialdia egin du lurraldeko udal eta mankomunitateen artean. Horren bitartez, Debagoienean 19 kontratu lagunduko



Udal brigadako langilea Oñatin, joan den neguko elurtean. | GOIENA

ditu diruz. Lanpostu horietako 17 udalen artean emango dituzte, eta beste biak, Debagoieneko Mankomunitateak.

Kontratuak bost hilabeterako izango dira eta lan-jardun osokoak izango dira. Kasu horretan, Gipuzkoako Foru Aldundiak 7.500 euroko laguntza emango du; zati handi bat da, kostu osoa 12.000 euro ingurukoa izango dela kalkulatu dutelako arduradunek. Kasu horretan, Foru Aldundiaren ebazpena ere urte bukaera baino lehen izatea espero dute.

Aurten, 29 kontratu

Krisia dela eta, kontratazio publikoak ere behea jo duen garai haue-tan, hala ere nolabaiteko eskaintza

egon da Debagoienean. Joan den irailean, 18 kontratu egiteko dirulaguntzak jaso zituzten Mankomunitateak eta udalek Foru Aldundiaren eskutik; deialdi horiek egin ziren. Orduko adinako finantzazioarekin eta baldintzekin –bost hilabeteko kontratuak eta bakoitzeko 1.500 euroko laguntza– egingo da datorren urteko deialdia ere. Bi eskaintzak Aldundiaren Enplegu Sustapenerako programen bitartez egin dira.

Lanbideren bitartez, bestalde, udalek 11 lanpostu eskaini ahal izan dituzte aurten, 42.000 euroko dirulaguntzarekin. Debagoienean egindako Eskualdeko Enplegu Planaren barruan egin zen eskaintza hori.

Andoni Uribetxebarria | Harreman GKEko kidea

"Inork ez dezala pentsa bere laguntza txikia denik"

Haiyan tifoia dela-eta, Filipinei laguntzeko kanpaina hasi du Harreman GKEk

L.K. | ARRASATE

Haiyan tifoia ostean, Filipinei laguntzeko kanpaina hasi du Harreman GKEk. Andoni Uribetxebarriaren esanetan, jendeak laguntza eman nahi zuelako hasi dute kanpaina. **Filipinetara laguntza bidali nahi duzue.**

Harremanekook, gure kabuz, ez dugu Filipinetako moduko larrialdietan erantzuteko gaitasunik, baina lehen, Haitiren kasuan, jendeak eskatu egin zigun, eta zerbait egin behar genuen. Haitiren kasuan, nahiko ondo joan zen, eta orain ere diru-bilketa kanpaina hasi dugu, gure laguntzaileei gutuna bidalita eta komunikabideetan kanpaina txiki bat eginda.

Filipinetan badago zuetariko edo inguruko erakundeetako inor?

Guk geuk ez daukagu inor eta Mundukidek ere ez, baina gure asmoa da, diru apur bat biltzen badugu, konfiantzazko norbait topatzea, ingurukoa bada hobeto, eta han dirulaguntza horiek inbertitzea. Hemengo jendea badago han: Unicef, Alboan, Aldeas Infantiles, Vicente Ferrer... Norbait topatzea ez da arazo izango; kontua da ea zenbat laguntza batzen dugun.

Lehetasunak zeintzuk dira?

Horrelako kasuetan, osasun arazoak eta elikagai eta ur falta arazoak daude. Hainbat familia geratu dira etxerik gabe, eta hori ere antolatuta egin behar da. Egoerak larriak dira: urrik eza, garbitasun arazoak eta horrek dakartzen ondorioak, osasun arazoak... Hori guztia ondo bideratzeko lan handia egin behar da.

Gabonen bueltan elkartasun kanpaina asko egoten dira. Hori dela eta, jendeak gehiago laguntzen du edo alderantziz, hainbeste eskaera dagoelako gutxiago laguntzen da?

Normalean jendeak gehiago laguntzen du. Ez dakit Gabon jaiak direlako edo zergatik izango den, baina sentiberatasun handiagoa agertzen du, eta Filipinetako moduko egoera baten aurrean, are gehiago.

Dena dela, epe luzera, jendeak jarraitzen du laguntzen edo ahaztu egiten zaigu?

Bai, ahaztu egiten zaigu gerora. Filipinetan lehen hilabetea pasa da eta orain daude behar handienak, orain hasten direlako berreraikitze lanak: etxebizitzak, eskolak, osasun zerbitzuak... Luze joango da, hango



Andoni Uribetxebarria. | L.K.

egoera normalizatu orduko urte asko pasatuko dira. Badakigu gauzak ezin direla egun batetik bestera egin, baina nahiz eta inpotentzia handia sentitu, ahalik eta gehien lagundu beharra dugu.

Lagundu nahi duenak ze aukera dituzte?

Kontuak ireki ditugu –Laboral Kutxan 3035 0001 51 0010127016, Kutxabanken 2095 5055 50 9113309330, Rural Kutxan 3008 0253 49 2793534526 eta Caixan 2100 1972 03 0200112601–, nahi duenak, ahal duen neurrian lagun dezan.

Nik badakit hemen ere egoera latzean gaudela, baina inork ez dezala pentsa gutxi laguntzen duenik eta bereak balio ez duenik, izan ere, askoren artean, asko egiten da, eta laguntza hartzen duenak ez du inoiz pentsatzen gutxi denik, beretzat asko da.

BCCk izendatu ditu ardoaren 12 adituak

Basque Culinary Center Fundazioak Ardoaren Institutua osatuko duten Adituen Batzordeko 12 kideak izendatu ditu: Pablo Alvarez, Guillermo Aranzabal, Jan Pettersen, Pepe Hidalgo, Agusti Torello, Elena Adell, Josep Roca, Pablo Martín eta Pedro Ballesteros, Espainiako Master of Wine bakarra.



VKCOMUNICACION

Euskal Janari Laster berrietarako ideia lehiaketak 2.500 euro emango ditu saritan

L.K. | ARRASATE

Euskal Janari Lastera, arin prestatzeko euskal janari berri, natural, osasuntsu, bariatu eta nutritiboak izango diren produktuak lortzeko ikerkuntza proiektua da Jakiberri Proiektua, eta Mondragon Korporazioko Iseak, Jakionek eta Azaro Fundazioak bultzatzen dute, Leartiker-Ikerkuntza gunearen eta Haziren laguntzarekin.

Idea lehiaketaren helburua da euskal janari lasterreko balizko produktuak aurkitzea. Oraingoan, bost sari emango dituzte, eta 2.500 euro banatuko dira guztira. Horretaz gain, irabazlearen ideia edo lehiaketan parte hartuko duen beste edozeinen ideia azkenean komertzializatuko balitz, Jakiberri Lan-Taldeak proposatzailea sarituko luke.

Orklik IESEren Bikaintasun Industrial saria jaso du

Mondragon Korporazioko Orklik kooperatibak IESE eskolak ematen duen Bikaintasun Industrial saria jaso zuen eguaztenean. Sariaren helburua da lehiakortasunean kontribuzioa egiten duten Espainiako enpresak nabarmentzea, eta bost urteko ibilbidea du. Orklik Ordizian du egoitza, eta 800 langile hiru herrialdetan.

Mikrokredituak eta opariak

Mundukidek Mozanbik iparraldeko nekazariei maileguak emateko mikrokreditu kanpaina abiarazi du beste behin. Diruz lagundu nahi duenak Laboral Kutxan egin dezake aportazioa, edo webgune honen bidez: www.mundukide.org/diruz-lagundu-eu.

Bestalde, Harreman Dendak bidezko merkataritzako produktuen otzarak eta erosketa-bonoak ipini ditu salgai, Gabonetan opari eman nahi dituztenentako.

Maite Urzain | Doluan espezializatutako erizaina

"Gabonetan, tentsioa kentzeko espazioak eskaini nahi dizkiogu dolua egiten dagoenari"

- ▶ 'Gabonak... eta etxean aulki bat hutsik' berbaldia egingo du Maite Urzainek Bergaran
- ▶ Gabonak egun zailak dira gertuko bat hil zaienendako, baina hori arintzeko moduak daude

LEIRE KORTABARRIA | ARRASATE

Erizain geriatrikoa eta osasun mentalean formazioa jasotakoa da Maite Urzain arrasatearra. Bartzelonan, Alba Payas adituaren eskutik, dolu prozesuan laguntzeko formazioa jaso zuen eta horretan dihardu Bergarako Mizpirualde egoitzan. Bihar, martitzena, *Gabonak... eta etxean aulki bat hutsik* berbaldia egingo du Mizpirualden (17:00).

Zelan landu daiteke dolu prozesu bat ahalik eta ondoen?

Ez dago formula magikorik. Dolua oso prozesu indibiduala eta intimoa da. Guk erabiltzen dugun eredutik, sintonia bat sortzen dugu pertsona hori dagoen momentuarekin, pentsamenduekin, sentimenduekin eta bizipenekin. Denbora eta lana behar da dolu bat aurrera eramateko: sentitzen dena adierazteko, pentsamendu horiek ulertzeko...

Doluan, hasieran zailena mina-ekin konektatzea da. Gure mekanismo naturala mina blokeatzea da. Hori naturala da, gorputza oso argia delako eta ez lukeelako jasango mina bat-batean jasotzea. Aurrera egiteko eta hori dena transformatzeko, norberak momentuak topatu behar ditu min horretatik deskonektatzeko, bakoitzaren baliabideekin; baina egon behar dira ere min horrekin konektatzeko eta ausentzia hori sentitzeko momentuak, esanahiak topatzeko momentuak; izan ere, ez da bakarrik pertsona hori galtzea, baita berarekin norberak zuen harremana ere. Harreman hori galtzerakoan, norberaren identitatearen zati bat ere galdu egiten da, eta horrek desoreka handia ematen digu.

Zuk, zure lanean, lagundu egiten diezu.

Gu bidelagunak gara, ez dugu gomendiorik ematen, eta ez dugu esaten zer egin behar duen eta zer ez. Poliki-poliki, bere erritmoan, pertsona horri laguntzen badiozu bere bizitzan sentimendu, pentsamendu eta joerak integratzen, aurrera egin dezake, transformatu eta esperientzia horri esanahiak topatu, izan ere, esperientzia gogorra da, baina bizitzako esperientzia, hori ere.

Aulki Hutsak dokumentala estreinatu berri da.

Neuk dokumentalean ez dut parte hartu, baina aurrekoan, hileta elizkizun baten egon nintzen eta abadeak Gabonez eta aulki hutsik hitz egin zuen. Horrek asko harritu ninduen eta pentsarazi ninduen bagoazela lan bat egiten.

Baina aulki hutsen kontzeptua ez da berria, ezta?

Doluz ari gara, eta Gabonak datoz. Jende guztia ospakizun giroan dago, topaguneak, bazkariak, opariak; herria argiz eta soinuak beteta dago... eta dolua egiten ari den pertsona hori guztiz alienatuta eta tentsioz bete senti zaitezke. Alba Payasek erai-ki zituen *Aulki hutsak* izeneko hitzaldi hauek, eta orain, beste pauso bat eman da eta dokumentala egin dute sentsibilizatuta dauden pertsona askok. Gabonen inguruan, alienatuta egotetik normaltasuna senti dezakezun espazio bat sortzea eta eskaintzea da helburua: Gabonak datoz, tentsioz beteta gaude... bada, zatoz, jesarri egingo gara eta ordu eta erdi hartuko dugu hitz egiteko, sentitzeko, eta egin ditzakegun gauzekin pentsatzeko. Hortik dator aulki hutsen kontzeptua. Egunotan landu da edo landuko da Arrasaten, Arantzazun, Mizpirualden...

Hitzaldi horietara joaterik ez duenari eman diezaiokazu gomendioaren bat, Gabonetan dolua nola egin?

Ahal badu, hitzaldira etor dadila, beste doludun batzuekin espazio hori konpartitzeko eta bakardadea apur bat leuntzen da. Baina egia da, gure bizitza oso agudo doa eta beti ez dago tarte hori edo gogo hori. Gomendio txiki batzuk hauek izango lirateke: bilera bat egitea gertuko familiarekin, eta umeak, zaharrak eta, kasuan kasu, gertuko lagunak bat gonbidatzea, eta bakoitzari hitz egiteko espazio bat ematea, moztu barik, eta emozioak eta sentimenduak adierazteko baimena ematea. Gabonak heldu baino lehen egin dezatela hori. Bakarrik bileratxo hori kontsigna horiekin egiteak euren komunikatzeko modua aldatuko du.

Etxean egiten diren erritualez hitz egiteko ere gomendatzen dugu: esatea norbera zelan sentitzen den Gabonetako zuhaitzaren aurrean, edo bazkari baten aurrean, edo oparien aurrean. Errituak errepasa ditzatela eta familiako bakoitzak adieraz dezala zer sentitzen duen. Eta gero, euren artean negoziatu eta adostu dezatela, sortu behar dituzten Gabon berri hauetan, zerk egiten dien on eta zerk ez, eta on egiten ez diena kentzeko ados jar daitezela. Edo akaso gehienek gauza bat egin dezakete baina bat zaurgarri edo bulnerable senti daiteke; orduan, besteek babesa eman beharko diote.



Maite Urzain erizaina. | LEIRE KORTABARRIA

"Minarekin konektatzeko momentuak topatu behar dira"

"Gabonen aurretik bil dadila familia, sentimenduak adierazteko"

"Umea urduritzen duena ez da heriotza, gure beldurra baizik"

Ona izan daiteke ere falta den pertsona hori modu sinbolikoan gogoratzea; eta hori, batzuek, bazkari aurretik topa bat egitea izan daiteke; beste batzuek, berezia zen elkarte bati dirua ematea, pertsona horri ohore egiteko.

Nola landu beharko genuke dolua umeekin?

Ez utzi umeak aparte. Umeak kreatiboak dira, eta ideia asko ematen dituzte. Hitz egin behar da ere ume txikiekin egingo ditugun gauzez. Umea urduritzen duena ez da heriotza, baizik eta heriotzaz hitz egiteak ematen digun beldurra. Dalai Lamak esaten zuen uste dugula umeek ez dutela gauza serioez pentsatzen, baina euren buruei egiten dizkieten galderak entzunda, hori horrela ez dela konturatzen gara. Hizkuntza euren adin ebolutibora egokituta, zer gertatzen ari den azaldu behar diegu. Heriotzaren beldurra senti dezakegu,

mina, pertsona hori faltan igaritzea. Baina baldin eta gai bagara gai hauetaz hitz egin dezakegula transmititzeko, orduan umeak jasotzen duten mina jasagarria da, eta hori oso inportantea da. Helduko zaie ere beste batzuekin konpartitzeko gai garela, eta ez garela bakartu edo ezkutatu behar malko bat jaisten zaigulako; alde-rantziz, maite dugun horri ohorea egitea dela.

Dolu perinatala ere lantzen duzu; luzaroan isilpean egon den dolua...

Umea jaiotzerakoan edo jaiotze aurreko hilabeteetan hiltzen denean gertatzen da. Hori bizi duten familiek euren guraso identitatea eta umearen identitatea aldarrikatzen dute. Gure gizartean, isildua eta gutxietsia izan da umearen galera hori. Ez da hitz egin behar, ez da ezer gertatzen, aurrera egin... horrela tratatu izan da. Dolu perinatala egoera traumatikoa izatez gain –ebakuntza-gela, medikazioa...– prozesua teknifikatu eta lapurtu egiten da, eta gaur egun oso profesional gutxi dira gai dolu perinatalari aurre egiteko. Norberaren umea, desioak, ametsak... ez daude; gurasoa minez beteta dago. Orain-txe hasi dira eskaintzen ekografiaren argazki bat gordetzea; batzuek izena emateko beharra dute, beste batzuek ez...baina ume hori existitu dela onartzeko eta espazio hori emateko beharra dute. Guraso horiek umezurtz gelditzen dira; euren umezkoa existitu egin da baina inork ez die beraz galdetzen. Askotan, euren guraso identitatea ere anulatu egiten zaie. Bi dolu gertatzen dira: umearen galera eta guraso identitatearena.

Doluen inguruan lan egitea zama bat da zuzetzat, egunero etxera erotzen duzun zerbait?

Nik aurkitu dudana ez da inondik inora zama. Guk eredu integratibo eta erlazonala lantzen dugu, eta denbora osoan transformazioan gaude. Profesional gisa entzun eta bideratu egiten dugu, eta alderantziz. Prozesu bakoitzean, pertsona bakoitzarekin, nahiz eta une zailak izan, ni hazi egiten naiz, humanoago bihurtzen naiz; orduan, ez dago zamarik, alde-rantziz, bizi izateko gogo handiagoak dauzkate: bikotekidearekin egoteko, poztasunak intentsitate handiagoarekin bizi izateko, umeari errealitatearen kolore guztiak transmititzeko, oso kontziente naizelako nola geldi gaitzkeen ez aurrera, ez atzera egin gabe.

ZABALIK

INIGO IÑURRATEGI
http://goiena.net/iritzia/



Debalde

Titulu hori jarrita ez noia gure erreka arro honen gañan berba egittera, ezta musu truk jaso geinken beste ezer kontatzera. Txikitari sarri entzuten giñuan norbaittek zeo-ze dohainik zala esateko "debalde" berbia erabiltzen zebanian "de balde aldameneko baserriek emoten jotsek txarrixei jaten". Eta sarritan holaxe erosten dogulakuan nago, de balde.

Aurreko egunetan bat egin ei dabe munduko agintarixok eta *Merkataritza liberalizatzeako itun globala lortu du Munduko Merkataritza Erakundeak* dakar *Berria-k* goiburu. Horrek esan nahi omen dau merkantziak merke antzian hara eta ona erreza ibiltzeko aukeria eukiko dogula. Barra libria erosi geinken edozein gauzek bere aurretiko bizitza motzian (jatorritik, ekoizten danetik, erosten dogun arte) egin daizken kilometruak.

Merke antzian dabiz hara eta ona bestiak beste mobitzeko darabilten energian benetako kostia ez dabelako ordaintzen eta batez be CO2a ixurtzian fakturia danon artian pagatzen dogulako (oinguok eta datozen belaunaldixetako).

Ez, ez zaittuet gabon bezperan erretolikekin aspertu nahi. Bakoitzak hartu daixela nahi daben arduria. Ni saiatuko naiz nire partia egitten. Bakarrrik animatzen zaittuet produktua aukeratzera begiratzera etiketetan eta kontuan hartzera gabonetan jan, edan edo janzteko erosiko dittugun produktuen kilometruak, gure eguberriatiko atmosferara "de balde" jaurtitako CO2 tonak.

Kontuan hartzeko zenbait datu: batz beste Espainian kontsumitzen dien zerealek 4.234 km egitten dittue, fruta eta lekarixek 5.034 km, arrainek 6.787 km, kafe eta kakaoak 6.227 km, esneki eta arraultzek 1.339 km... Eta Bangladesh-en egindako edozein arropak 8.600 km egingo zittuan gutxienez.

Ez deigun kontsumidu de balde, erosten dogun horren barri ondo jakin barik. Ahal dan heinian bertakua eta sasoikua. Danontzako hobia izango da.

"Bertakua eta sasoikua; danontzako hobia izango da"

USTEAK USTE

JON BEREZIBAR | jberezibar@goiena.com

Ikara berria kalean

Ikaragarria da Espainiako Gobernuaren azkena. Ikaragarri ez ikusgarritasunean, eragiten duen izuarengatik baizik. Segur-tasun pribatuko zaindareie herritarrek identifikatu, haztatu eta, baita kalean ere, atxiki ahalko dituzte lege-egitasmoari, litekeena den moduan, Senatuak argi berdea ematen badio. Alderdi Popularraren obsesio pribatizatzaileetan larrienetakoa da hau, askatasuna murrizteari dioten zaletasunetan, bereziene-takoa. Murphyrekin bezala, gaizki irten daitekeen zerbait ziur-renik hala irtengo bada, abusurako bide gehiago ematen zaio-nari, ziurrenik, gehiago abusatuko du.

KALE INKESTA

Ba al duzu Santamasak ospatzeko asmorik?



GAIZKA MENA
ARRASATE

"Behingoagatik jai daukat fabrikan, eta dudarik gabe irtengo naiz kalera. Herri bazkarira joateko asmoa daukat".



ANE KORTABARRIA
ARRASATE

"Kaleko giroa ikusi, ferixara joan, eta gero lehenengo aldiz herri bazkarira joango gara lagunak".



JOXE MARI ETXEBARRIA
ARRASATE

"Normalean Donostiara joaten naiz, alabak han ditudalako. Hala ere, Arrasaten giro politagoa egoten dela uste dut".



MIRIAM GARZIA
ELORRIO

"Urtero etortzen gara, eta aurten ere etorriko gara. Aukera ederra da bertako baserriarren produktuak ikusi eta erosteko".

HANDIK ETA HEMENDIK

ETB ez ikusteko aukera

Aritz Galarraga
berria.info/blogak/ekografiak/

Leoncio fikziozko pertsonaia zela konbentzita nengoen. [...] Baina, kia, hezur-haragitan ezagutu berri dut. Existitzen da. Eta bizi-bizirik dago. Kontatu dit, gainera, aita nagusi duela, adinean gora nola, egin duela osasunean behera, jada ezin duela praktikatu gehien maite duen kirola: etxe azpiko ostantura jaistea, pilota partida ikustera. Eta etxeko telebistan egin behar dituela orain egin ahalak pilota partidak ikusten segitu ahal izateko, poz txiki hori atxikitze... [...]

Auskalo zergatik, ETB-Nafarroa aferarekin Leoncioren aita datorkit burura. Leoncioren aitaren egoeran daudenak, eta, oro har, ETB malabarismorik gabe ikusi nahiko luketen nafarrak. Eta baita ETB ikusi ahal baina ikusi nahiko ez luketen nafarrak ere. [...]

Berrien segida hau izan da: Nafarroako Parlamentuak sarea digitalizatze eskaera egin zion EITBri urrian —PSN, Bildu, Aralar, I-E eta Geroa

Bairen aldeko bozekin; eta UPN eta PPNren abstentzioarekin—. EITB sarea digitalizatzen hasi omen zen asteazkenean. Nafarroako Gobernuak EITBk Nafarroako LTDko kateak "legez kanpo hartu" zituela salatu zuen asteazkenean bertan. Atzo, ostegunarekin, Iñigo Urkulluk Yolanda Barcinari jakinarazi zion sare analogikoaren digitalizazio prozesua bertan behera utzi dela.

Kezka sortu zidan kontu batek: UPN eta bere gobernuak, kolpea kolpearen atzetik, noraino saiatuko ote zen afera hau errentagarri egiten, noraino saiatuko ote zen "que vienen los vascos" horren bertsio berritua eskaintzen. Hasi zen, akordioa eta bere abstentzioa duen erabaki bat "legez kanpokoa" zela esanez. Baina beharrik ez dute izan, EAJk leundu die bidea.

Eta, azkenerako, inpresioa da beste askotan sentitutakoa: batzuen eta besteen politikakerien artean, galtzaileak beti berak direla: Leoncioren aita eta gisakoak, pilota partidari gabe geratuko lirakeenak; baina, halaber, ETB ez ikusteko aukera galduko luketenak. Txapa, oraingoz, eta gehienetan bezala, irabazleen alde erori da.

Laborategira piezak garbituta heldu ote diren susmoa

Juan Martin Elexpuru
http://blogak.goiena.net/elexpuru/

Gaiari buruzko informazioa eta eztabaida *ama ata* blogean.

Gaia jarraitu duenak badu honen berri.

Gutariko inork ezin izan ditu piezak fisikoki ikusi azken bost urtean, ezta Eliseo Gilek edo Idoia Filloyk ere.

Eta epe honetako argazkirik ere ez.

Hori bai, badakigu "beste aldeko" askoren eskuetatik pasatu direla, grafologoak eta abar.

Nahi izan duten guztiak, azken batean, euren esku egon baitira.

Baina badakigu batzuk behintzat garbitu egin zituztela, eta zehatz gainera, 2006ko argazkiak eta 2008ko alderatuta. Gorrochateguren txostenean agertzen diren biak, esaterako. Orain galdera nagusia hau da: Madrileran eraman dituzten pieza GUZTIAK aurrez garbituta ote daude?

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

Argitaratzailea Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiboa Elkartea
E05 Basabe Poligonoa,
20550 ARETXABALETA
Lehendakaria Aitor Izagire
Zuzendari nagusia Iban Arantxabal

Zuzendaria Eneko Azkarate
Erredaktore burua Ubane Madera
Sailietako arduradunak Xabi Urtzelai (Kirola), Iñaki Iturbe (Disenua), Mireia Larrañaga (Publizitatea)

Asteburuko edizio arduraduna Xabier Urtzelai
Maketaria Iñaki Iturbe, Kepa Martelo
Argazkilaria Imanol Soriano
Publizitatea Mireia Larrañaga, Amaia Mundifano, Zierza Martin, Imanol Elortza
Testuen zuzenketa Sergio Azkarate
Harpidetza eta banaketa Maria Leturia
Administrazioa Argutzone Gaintzarain, Ane Berezibar, Iratxe Bengoa


EGOITZA NAGUSIA - GOIENA PAPEREA
ARRASATE 20500:
Udalora Lizenziaduna 31 | 132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00

ORDEZKARITZA
ARETXABALETA 20550:
E05 Basabe Poligonoa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 09

Publizitatea Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05
Faxa: 943 25 05 09 | publi@goiena.com

Harpidetza Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.com

Legu Gordailua: SS-0088/04
ISSN: 2173-707X
Tirada: 5.000 ale
Difusioa: 4.383 ale




EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Euzko Jaurlaritza
diruz lagundutako
aldizkaria

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Ez zaitez galdu.



EROSKETAK DEBAGOIENEAN EGIN!

... eta hartu parte
20 euroko

100

erosketa-bonuren
zozketan



DEBAGOIENeko MANKOMUNITATEA

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA



HERRIAK

ONATI

Herria, genero ikuspegitik landu eta aztertuko dute emakumeek

- Oñati nola dagoen eraikita izango dute berbegai bihar hasiko diren bileretan
- Udaleko Berdintasun sailak antolatu eta Farapi enpresak koordinatuko du proiektua

IRATI GOITIA | ONATI

Herriko emakume ugari aritu ziren iaz Berdintasun Plana lanzen eta bertan jaso zen herriko hirigintza arloa genero ikuspuntutik aztertze beharra zegoela. Horixe da orain egin behar dutena: herria emakumeen ikuspegitik eta sentimenduetatik aztertu. Farapi aholkularitza enpresa kontratatu du Udalak azterketa koordinatzeko.

Emakumeekin zuzenean

"Proiektu honen helburuetako bat da Oñati emakumeen ikuspuntutik nola dagoen eraikita aztertzea. Ikerketa hori emakumeekin eurekin egingo dugu", dio Jone Karrera Farapiko langileak eta proiektuko koordinatzaileak. Hain zuzen, bihar hasiko dira hainbat emakume taldeekin bilerak eginen. "Gure asmoa da ahalik eta emakume gehien-gana iristea. Udaletik kontaktuan jarri gara hainbatekin, perfil ezberdinetako emakumeekin egongo garela bermatzeko". Hala, Karrerak zehaztu digu batxilergoko neskekin, unibertsitatean dabilzaneekin, erretiratuta daudeneekin, atzerritarrekin, elbarriuekin, alargunekin... batuko dela. "Bilera informalak izango dira. Euren lehen sentipenak batu nahi ditugu". Bestalde, urtarrilean bilera tailer irekiak egingo dituzte. Hala ere, emakumeren batek informazioa jaso edo zerbait helarazi nahi badu Gizarte Zerbitzue-

tarako jo dezakeela esan digu. "Parte-hartzea guretzat oinarrikoa da, beraz, emakume guztiak animatu nahi ditugu", dio koordinatzaileak. Hain zuzen, horren arabera moldatuko dituzte datak, baina proiektua ekainerako bukatuta egotea espero dute.

"Hirigintzak generoa du"

"Historikoki hirigintza sailtan gizonetakoak egon izan dira nagusiki eta euren ikuspegitik landu izan dituzte hainbat aspektu. Ondorioz, oso baztertzaila izan da hirigintza hainbat aspektutan. Beharrezkoa da zakarrontzi edo erakin bat diseinatzeko urrats guztietan presente egotea genero ikuspegia", dio Karrerak. Gaine-

ratu digu emakumeek eta gizonetakoek ez dutela herriaren erabilera bera eginen. "Irisgarritasuna da adibide bat. Emakumeek sarriago ibili ohi gara erosketa karroz edo ume-kotxeaz, beraz, ezberdina da eskailerak edo malda bat jartzea. Bestalde, emakumeek ziurtasun-gabezia sufritzea ere ohikoagoa da eta eragozpen handiak dira, esaterako: toki ilunak, amaiera ikusterik ez duzun kaleak...". Eragozpen horiek antzematea baino gehiago egingo dute, baina, azterketa honetan, "emakumeen errepresentazio sinbolikoa, adibidez, kale izendegiarena ere landuko da. Zeharkako aspektu guztiak izango dira kontuan: mugikortasuna, segurtasuna, irisgarritasuna...".

ESANAK

"Emakume eta gizonen herria ezberdin erabiltzen dute"

JONE KARRERA | KOORDINATZAILEA

"Hirigintza proiektuetan aintzat hartuko dira ondorioak"

MAIALEN URZELAI | ZINEGOTZIA

Udaleko erabaketan eragina

Behin, emakumeekin izan ostean eta informazio guztia jasotakoan, hobetu beharreko puntuak zehaztuko dituzte. "Nahi duguna da lanketa honetatik ateratzen diren ondorioek aplikazioa izatea etorkizunean Udaletik egingo diren hirigintza proiektuetan. Horretaz gain, herritarrek genero ikuspegiak duen garrantziaz jabetzea ere nahi dugu", esan digu Berdintasuneko batzordeburu Maialen Urzelai. Hala, zehaztu digu lehen fasea emakumeekin egingo dela, baina aurrerago udaletxeko arkitekto eta aparejadoreak azterketan jasotakoa lehen eskutik entzutea aurreikusten dutela.



Emakumea erosketa karroz eskailerak igo nahian. | 16.



Oñatiko jaietan, Egun Morearen baitan, izena aldatu zieten hainbat kaleri. | 16.

Urtez urte, parekidetasuna bermatzeko ahaleginean

Oñatiko Udal Gobernuarentzat lehentasunezko gaia da emakume eta gizonen arteko parekidetasuna sustatzea. Hala, agintaldi hasieran eratu zuen Berdintasun batzordea eta iaz Berdintasun Plana egin zuen herriko hainbat emakumerekin batera. "Behin batzordea eratuta, informazio falta nabaritu genuen eta diagnostiko bat egin beharra, arlo honen lan ildo nagusiak zehazteko. Beraz, iaz egin genuen plan horrek urtero egin beharrekoa jasotzen du. Hirigintza arloa aztertzea zen 2013rako aurreikusita zegoena", azaldu digu Maialen Urzelai Berdintasuneko batzordeburuak.



Oñatiko Berdintasun Planaren aurkezpena. | GOIENA



Bi horma arteko kalean, emakumea. | 16.

ARRASATE

Arrasateko askotariko eragileek 'ganorazko keinuz' bete zuten herria

- ▶ 'Ganorazko keinuak' ekimena egin zuten zapatuan
- ▶ Antolatzaileek egunaren balorazio positiboa egin dute

TXOMIN MADINA | ARRASATE

Azoka plazan, herriko artisauek, bigarren eskuko produktuak eta liburuak, arropa zein jostailuak trukatzeko aukera. Seber Altube plazan, Ereindajan kooperatibaren elikagaiak. Kulturaten, Emausen produktuak eta liburuak nahi beste. Biteri plazan Ibai-Artek jarritako puzgarriak eta jolasak. Bazkaltzeko, Ekin Emakumeak elkartean biltzen diren etorkinek egindako Sahar, Pakistan eta Marokoko platerak...

Arrasaten eragile asko eta askotarikoak daudela argi geratu zen zapatuan Udalak, Bagarak eta Emausek antolatutako *Ganorazko Keinuk* ekimenari esker. "Balorazio positiboa egiten dugu; eguraldiak lagundu du, jendea gerturatu da eta gustura ibili da. Ginkanan jende askok hartu du parte... Lehenengo izateko pozik



Arropa, disko eta liburuez gain, jostailuak ere trukatu zituzten. | I.S.

gaude", adierazi zuen Bagarako Onintze Guridik eta ekimenaren helburua gogoratu: "Eguna antolatzen ibili garenek bat egiten dugu helburuetan: etorkizun

hobeago baten alde gaude, kontsumo arduratsuaren eta iraunkortasunaren alde. Gabonak hain gertu daudela, hori gogoratu gura genuen".



Bazkaltzeko, Sahara, Maroko eta Pakistango platerak aukeran. | IMANOL SORIANO



Emausen altzari berrituak Kulturaten, eta liburuak borondatearen truk. | I.S.

Emauseko Kulturaten

Antolakuntzan ibili zen Emaus Fundazioak egiten duten lana erakutsi zuen Kulturaten, baita 2014an Arrasaten irekiko duten

Ekozenterraren maketa ere. "Goizean ibili da jendea, eta maketak ere ikusmina piztu du. Balorazio positiboa egiten dugu" esan zuen Emauseko June Polok.

AMAGARAK zure ongizatearen alde lan egiten du.

Gabon zoriontsuak, guztioi!



Edertasuna oparitu!

- Mikropigmentazioan **%30eko** deskontua.
- Betileen permanente eta tindatzearekin, **manikura bat opari.**
- Mantentze produktuetan **%10eko** deskontua. (urtarrilaren 3ra arte bakarrik)
- Eta ideia gehiago Gabonetan oparitzeko...



AMAGARA
Erdiko kalea 54 behea
20500 ARRASATE
Tel.: 943 79 09 09

OÑATI

Elkartasuna berriro ere irabazle zapatuan Oñatin egindako azokan

Hamabost GKEk hartu zuten parte azokan, produktuak saldu eta euren proiektuen berri emanaz

TXOMIN MADINA | OÑATI

Elkartasuna ardatz, *Elkar Hezi taupadak* azoka egin zuten zapatuan Oñatin Elkar Hezi ikastetxeak antolatuta. Eguraldia lagun, eguer-

di partean asko izan ziren azokara gerturatu zirenak.

Hamalagarrena izan den azokan ikastetxeak txosna jarri zuten, baita hainbat gozoki eta

bitxi saldu ere; jasotakoa, Malin dagoen Saint Paul ikastetxeari laguntzeko izango da.

Erantzunarekin gustura

Hamabost GKE zeuden azokan, eta gustura zeuden erantzunarekin. "Saski bat zozketatu dugu, eta txartel denak saldu dira. Beste produktuak erosteko ere egon da mugimendua", zioen Bubulum elkarte Amaia Goitiak. Bidezko merkataritza egin duen Harreman Dendakoak ere pozik zeuden azokak emandakoarekin.

Zazpi Udaberri taldeko Mariasun Santxok horrelako ekintzak eskertu zituen, bere esanetan proiektuak ezagutarazi eta elkarrean arteko harremanak sendotzeko balio dutelako. Etxeko txikiak gainera, Amaia Diaz de Monasterioguren dietetikan adituarekin eta Potx eta Motx pailazoekin merkatura joan eta garaiko fruitak eta barazkiak ezagutu zituzten.



Jende asko erakarri du azokak eguerdi partean. | T.M.



Mendira igotzeko Tomaxek Hipori egin zion makila. | IMANOL SORIANO



Ikusleak ere igo ziren agertoki gainera. | IMANOL SORIANO

OÑATI

Pailazoen konpainian, mendia dibertigarriago

Hipo eta Tomax pailazoen 'Ikusi mendizaleak' izeneko ikuskizuna eskaini zuten Oñatin

T.M. | OÑATI

Hipo eta Tomax pailazoen ikusmina behintzat piztu zuten zapatuan Oñatin eskaini zuten emanaldirako, ume zein helduek goraino bete zuten-eta Urgain Zuazola Institutuko aretoa. *Ikusi mendizaleak* ikuskizuna eroan zuten Oñatira, izenburuak argi uzten duen moduan, mendian kokatutako istorioa.

Bi pailazoen egindako mendi-bueltan baina, aldapak, izerdia eta nekea barik, barre algarak izan ziren jaun eta jabe

lehen unetik: Hipok makila aproposa izan zezan Tomaxek pasatako komeriak; hain txikia ez zen zizarearen eraso; ondo abestean bota zuen elurra; Eustakio, euskal yetia... Gailurre-ra heldu bitartean pasatako ordubetea, ez ziren abestiak falta izan, ezta ikusleen arteko lehiaketa ere.

Urgain Errekalde ikastetxe-ko Gurasoen Elkarteak antolatu zuen emanaldia, eta bukaeran, gaztainak eta edariak banatu zituzten ikusleen artean.

GORETTI MADINA
OÑATI



"Elkar Heziko gurasoa naiz, eta saltzen ere egon naiz. Erosi ere egin dut, baina zer erosi baino, dirua nora zuzenduta dagoen da garrantzitsua hemen".

JABIER ARKAUZ
OÑATI



"Azoka polita izan da, eta umeak ere ederki ibili dira. Bidezko merkataritzako produktuak erosi ditut: apur bat gehiago ordaindu arren, merezi du".

PATXI BLAZQUEZ
OÑATI



"Alaba saltzen egon da, eta txikiena aldiz, jokoetan. Beti erosten da zerbait, gainera aprobetxatu egin behar da, helburu on baterako da-eta".

OÑATI

Gurutze Gorrikoen praktika saioak Oñatin

Euskal Herriko hainbat tokitako Gurutze Gorriko ERIE taldeetako (Iarrialdietako berehalako erantzun taldeak) 40 lagun inguruk bilaketa praktikak egin zituzten zapatuan Oñatiko mendietan. "GPS-arekin praktikak egingo ditugu, baita orientazio ariketak ere", azaldu zuen Debagoieneko Gurutze Gorriko boluntarioa den Iban Iarzak.



TXOMIN MADINA

BERGARA

Trikiti zein pandero doinuez zipriztinduta igaro zuten zapatua bergararrek

Antolatzaileak pozik geratu dira ikastaroen herritarren artean izan duten harrera onaz

ANDER LARRAÑAGA | BERGARA

2006az geroztik ez da Trikiti Festa berriro egin, baina, aurten festa hau berreskuratzea lortu dute Bergaran Erdizka Trikitixa Elkarteari esker.

Giro paregabea eta herrikoia usain zitekeen arratsaldetik: ikastaroen jende asko batu zuen musika eskolan, eta ondoren, erromeria eskaini zuen *Ai Ene!* taldeak Muniben. Erromerian dantzan aritu zirenek, indarrak berreskuratu zituzten gaztainajarekin.

Ikastaro desberdinak

Bigarren edizio honetan, trikitilari zein pandero-joleak ez dira protagonista bakarrak izan: guraso eta hasiberriek ere parte hartu zuten ikastaro hauean, instrumentu hauek nola jotzen diren apur bat ikasteko.

Kantuari ere eskaini zioten ikastaro bat: horretarako, Eneko Longarte durangarra etorri zen gaztetxoei mikrofono aurrean nola abestu behar den erakusteko asmoz.

Hala ere, ikastaroak ez ziren bertan geratu: Imanol Urkizu oriotarrak pandero ikastaro aurreratu eskaini zuen pandero-jole ikasleendako. Hala azaldu zuen Urkizuk, halako egunak antolatzaren garrantziaz: "Saiatu behar ko ginatete urtean osoan zehar horrelako ekitaldiak aurrera eramaten, ez soilik egun puntualetan. Era honetan, jendeak instrumentu hauek ezagutaraztea lortzen dugu eta bide batez, musikariok elkar ezagutzeko modua ere bada. Bestetik, halako egun berezi bat ospatzea kulturalki oso aberatsa eta baliagarria dela iruditzen zait".



Munibe plazan *Ai Ene!* taldeak eskainitako kontzertua. | ANDER LARRAÑAGA

IMANOL URKIZU
PANDERO
IRAKASLEA



"Nire jotzeko modua guztiz desberdina da. Nik dakitena erakusteko prest nago beti, horregatik onartu dut gonbita Bergarara etortzeko gaur".

JONE MOÑUZ ETA IRATI IÑARRA
PANDERO
IKASLEAK



"Gu pandero ikasleak gara, baina, gaur, mikrofono aurrean abesteko intenzioa dugu. Gero erromeriara joango gara eta gaiztainetaz gozatuko dugu".

ENEKO LONGARTE
KANTU IRAKASLEA



"Mikrofono aurrean zelan kantatu erakustera etorri naiz bergarara. Ez dut erromerietara begira soilik irakasten, musika guztira begira orokorrean".

ESKORIATZA

Produktu ekologikoak protagonista

Ekolorek antolatutako azoka ekologikoak jende ugari erakarri zuen zapatuan



Azoka ekologikoa, Ibarraundin. | ANDER LARRAÑAGA

ANDER LARRAÑAGA | ESKORIATZA

Azoka ekologikoa egin zuten zapatuan Eskoriatzako Ibarraundi Museoan. Udalarekin elkarlanean aritu den Ekolore plataformak antolatu du: plataforma hau Glow kooperatiba gaztearen barruan kokatzen da.

Goiz osoan zehar, Eskoriatzako zein bailarako komertzio batzuek euren produktu ekologikoak saltzen jarri zituzten: txokolatea, tea, denboraldiko barazkiak, material birziklatuekin eskuz egindako apaingarriak, bigarren eskuko arropa, olioak, zukuak eta sagardoa bezalako produktuak erosteko aukera izan zuten gerturatu zirenek.



Umeak, ekologia lantzen duten jokoak egiten. | ANDER LARRAÑAGA

Goiz osoan zehar jende mordea gerturatu zen azoka bereziaz gozatuz: Gabonak gertu direla aitzaki hartuta, haur, gazte zein helduak hurbildu ziren opariren bat edo beste erosteko.

Joko eta antzerki artean

Goiz eta arratsaldean familian lantzeko jokoak egon ziren; etxeko txikiak kontzientziatzeko gai honen aurrean. Arratsaldean, antzerkia ere egon zen.

Euskalduna

Hileta Zerbitzuak



BEILATOKIA • ETENGABEKO ZERBITZUA • LORE KOROAK
ESKELAK • TRAMITE GUZTIEN BIDERATZEA



Amilaga 39, Bergara • Tel./Faxa: 943 76 12 99 • e-posta: euskalduna@harrespil.net

40 urteko musika jarria jasotzen duen DVDA, gertu

'Arrasate Musikal, herri baten adierazpena' lana egubakoitzean aurkeztuko dute, Kulturaten (19:30)

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

Ukaezina da Arrasate Musikalek herrian duen oihartzuna. Musika eskolak 1972an Metalurgica Cerrajerá Mondragon enpresak utzitako pabiloian -egun Mankomunitatea dagoen eraikinean- hasi zuen bere bidea, eta ordutik hainbat lekualdaketa eta makina bat gertaera bizi izan dituzte. Egun Monterron jauregia dute egoitza eta han hartu gaitu Edorta Aiastruik, 40. urteurrena dela eta egubakoitzean aurkeztuko duten DVDaren gainean berba egiteko: *Arrasate Musikal, herri baten adierazpena*. Kulturaten aurkeztuko dute, 19:30ean.

Ikus-entzunezko interesgarria

"Gure hasierako asmoa zen 50 urte betetzen genuenean egitea ikus-entzunezkoa, baina Dragoi Produkzioak enpresako ardura-dunek proposamena egin ziguten eta aurrera egitea erabaki genuen", dio Aiastruik. Bi zati ditu, "oso ondo bereizita" daudenak. Batetik, 40 urteen kontakizun kronologikoa egiten da: "Arrasate Musikalen bilakaera jasotzen du; egoitza aldaketak eta irakaskuntza ereduaren bilakaera nolakoa izan zen erakusten du, besteak beste". Bestetik, Arrasate Musikalen egungo egoeraren berri ere ematen du ikus-entzunezkoak: "Irakaskuntza aldetik zer eskaintzen

dugun, antolatzen ditugun ekin-tzak eta nola osatuta gauden erakusten du. Herriarekin dugun harreman estua ere argi ikusten da DVDean". Horrez gain, eskolarekin zerikusi estua duten pertsonekin egindako elkarriketekin ere osatu dute ikus-entzunezkoa: "Ez dute inongo oztoporik jarri parte hartzeko eta benetan esker-tzekoa da", diote egileek.

Pendrive-a edo DVDA salgai

Ikus-entzunezkoa DVDean eta lau gigabyteko pendrive baten salduko dute, abenduaren 20tik aurrera. Kajoi, Itzala eta Rumba tabernetan eta Ttukun, Elkar, Tamayo, Eya Etxetresnak, Jon eta Elkoro dendetan erosi ahal da, hamar eurotan. Arrasate Musikalen ere jarriko dute salgai urtarrilaren 7tik aurrera, 16:30etik 19:30era. "Bizi guztian gordetzeko" dokumentua da, Aiastruiren arabera: "Gainera, herriko jende asko agertzen da eta horrek ere polita egiten du ikusteko", gaineratu du.

Inoiz baino ikasle gehiago


40 urteren ostean osasuntsu dago Arrasate Musikal. Ikasturte honetan 605 ikasle matrikulatu dira: "600 ikasleen langa gainditu dugu lehen aldiz, baina Arrasaten zein egoera bizi digun ikusita auskalo zer gertatuko den datorren urtean", esan digu Aiastruik. Ikasle aldetik bizi-bizi dago eskola baina ekonomikoki ez daude uneri onenean: "Jaurilaritzatik murrizketak heldu zaizkigu".

Gabonetan agenda emanaldiz lepo izango dute: ikasleak Kulturaten -DVDA aurkeztu baino lehen- eta Iturbide egoitzan; Gabon-zaharreko bandaren kontzertua Amaian Goikobalu abesbatzaren kolaborazioarekin... Arrasate musikatzan jarraituko dute.

ESANAK

"Gure bilakaera eta herriarekin dugun harreman estua argi ikusten da DVDean"

EDORTA AIASTUI | ARRASATE
MUSIKALEKO EKINTZA ARDURADUNA



Edorta Aiastruik DVDarekin, Monterron jauregiaren atarian. | JOKIN BEREZIARTUA

NIRE USTEZ

ITSASO ERRETOLATZA



Txabolan lotan

Mende laurden bat pasa ondoren... halaxe izango da txabolara lehen aldiz joan ginenetik. Orduan, mendi itzulia egin asmoz geratu ginen Leixargarateko txabolan lotara, gerora Hiru Handiak hiru-egunetan izango zena frogatu guran. Orduan egin genituen Murruxikokoak lagun, ariketa espiritualak medio, gaur oraindik lagun darraigunak.

Bada, asteburu pare bat dela, berriz eta ohitura legez Leixargarateko txabolan pasa duguna gaua. Azkenaldian umeak ere gurekin etortzen dira, eta gure ohitura oraindik ez espiritualei jarraiki, oinez igotzen dugu asteburu bertan

pasa asmoz. Baina azken urteotan bi txabolak okupatzen ditugun jende kopuru andana egoten gara.

Eurpean paradisuan egon ginen. Non egon daiteke bada hobeto, gure adinean lagunekin hizketaldi sakonak, hitz asper-tuak, eztabaida eta barreak presarik gabe eta kotxea hartzeko beldurrik gabe? Gutxiagitan aprobetxatzen dugun aukera horietariko bat da txabola, sutondoan goxo eta naturaren erdian gozatutako egonaldia, nagusiek zein gazteenek atsegin ez urtero errepikatzen duguna. Bizipen gogoangarria!

Bertako paradisua da mendi taldeok hain txukun kudeatzen duten aterpea. A ze zortea daukagun mendizaleok!

Eskerrik asko benetan Besaideri eta Murruxikori.

"Sutondoan goxo, naturaren erdian; gogoangarria!"

Alde zaharreko termiten izurritea berbagai biharko osoko bilkuran

J.B. | ARRASATE

Alde zaharrean intsektuen aurkako eta termita izurritea kontrolatzeko zerbitzua esleipen prozesuan jartzea bozkatuko du bihar, besteak beste, Arrasateko udalbatzak osoko bilkuran -udal-letxe osoko bilkuren aretoan, 18:00etan-. Lehiaketa bidez ire-

kiko da prozesua Udalak gero helburuei hobekien egokitzen den enpresari esleituko dio zerbitzua. Era berean, Hiri Antolamendurako Plan Orokorren (HAPO) barruan, Asubealde eta Altzaurti ingururako behin-behineko aldaketak ere onartu behar-ko dituzte.

Hainbat erabaki hartu behar

Bestalde, Biteri eta Laubideko aparkalekuak ere izango dituzte hizpide; 2014rako tarifak finkatu behar dituzte, besteak beste. Horrez gain, "hiri bideen zirkulazioaren eta erabileren" gaineko udal ordenantza hasiera baten onartzea ere proposatuko du udalbatzak, eta baita Udalaren euskararen erabilera plana onartzea ere. Garaia Berrikuntza Gunearen kapital handitzearen gainean ere egingo dute berba.

90 urtetik gorakoei omenaldia egingo diete bihar Etxaluzen

Urteroko ohiturari eutsiz, Abaroa erretiratu elkarteak 90 urtetik gorakoei omenaldia egingo diete aurten ere. Bihar izango da ekitaldia, Etxaluzen, 12:00etan hasita. Lehen solairuko lehen aretoan egingo dute omenaldia eta zuzendaritza taldekoek iragarri duteenez, opari bana emango diete protagonistei.

Gabonak direla-eta, Eskuaratean taldekoak kalera irtengo dira

Eskuaratean Arrasateko artisauen kolektiboak ez du hutsik egingo Santamasetako azokan. Horrez gain, hilaren 23an -egun osoz- eta 24an -goizez- postuak jarriko dituzte Seber Altube plazan. Gainera, zozketa solidarioa egingo dute; euro baten truke 16 opari zozketatuko dituzte. Jasotako dirua Gipuzkoako elikagai bankura bideratuko dute.

'Arrasateko Iragana Astintzen' zikloa itxiko duen saioa bihar

Arrasate Zientzia Elkarteak antolatutako Arrasateko Iragana Astintzen hitzaldi zikloko azken saioa gidatuko du bihar Maria Ines Olaranek historialariak -Kulturateko areto nagusian, 19:00etan-. Hizlariak bere aitaz egingo du berba, Ricardo Olanen industria-arkitekto famatuaren gainean, hain justu.

Gaztelupekoak 'Gaztea parody lehiaketa' lortzeko bidean

Parean 29 partaide izan arren, oraingoz lehen postuan jarraitzen dute Arrasateko ikasleek

I.G. | ARRASATE

Arizmendi Ikastolako Gaztelupe guneko Batxilergoko lehen mailako ikasle talde batek Gazteak antolatutako *Parody* lehiaketan parte hartzeko erabakia hartu zuen. Guztira, 83 bideo aurkeztu ziren, eta arrasatearren *Feel this moment* bideoa finalerako txartela lortu duten 30 lanen artean aukeratu du epaimahaiak.

Jendearen esku

Dagoeneko martxan dagoen bigarren fasean jendearen bozkek

beharko dituzte lehiaketako lehen saria lortzeko. Ikasleei lagundu nahi dietenek *eitb.com* webgunearan Gaztearen atalean eman dezakete euren botoa. Egunean boto bat eman daiteke posta elektronikoko kontu bakoitzeko.

Abenduaren 19ko gauerdira arteko epea dago botoa emateko. Abenduaren 20an, goizean, *Dida!* saioan iragarriko dute bideo bakoituen zein izan den (2.000 euroko saria irabaziko du), baita epaimahaiaren saria (1.000 euro) zeinentzat izango den ere.

Gasteiztik gaztetxeko Kooltur eguena astintzera

Arabako laukote horren originaltasunak beteko du gaztetxeko oholza gaueko hamarretan

I.G. | ARRASATE

The Allnighters taldea Gasteizkoa da, oso veteranoa; izan ere, kon-dairak dioenez, talde horren aurretik ez zuen inork musika beltza lantzen Gasteizen, ezta Euskal Herria osoan ere. Taldea 1988an sortu zuten, eta rhythm-and-blues, soul, boogie eta Chicagoko bluesa egiten maisuak zirela erakutsi zuten berehala.

Kontzertu energiko ugari egin zituzten eta bi maketa, hiru dis-

ko eta bi single kaleratu ostean, 1998an, taldea onenean zegoenean, proiektua utzi egin zuten.

Luzaroan taldekideek beste talde batzuetan jo dute: The Boogaloo, Ortophonk, Go Freaks, Acapulco Gold Diggers, Electric Five Samba, The Cherry Boppers... eta bukatzea doan 2013 honetan, kontzertu gutxi batzuk emateko elkartzera erabaki dute. Eguen-koa euskal musikaren harribitxi hori ezagutzeko aukera da.

CCOOk hoteleko kaleratzeen auzia epaitegira eroango du

Hotelak beheko solairua berrantolatu, eta sarrera tokiz aldatu du; orain, tabernak barra txikiagoa dauka

IMANOL GALLEGO | ARRASATE

Mondragon Hoteleko hiru langile kaleratu dituztela salatzen berri du CCOOk. Diotenez, hiru langileak sindikatuko kide iza-teagatik kaleratu dituzte: "Ugazabak arrazozi ekonomikoak aipatu dituen arren, protesta-tzeagatik kaleratu dituzte", salatu du CCOO sindikatuko kide Julian Feok. CCOOk kideak oso hitz gogorrek erabili ditu hotelaren kontra, eta euren iturrien arabera, langileek urteko ordu kopurua abuzturako eginak zituztela gaineratu du.

Sindikatuak argi utzi nahi izan du edozein kaleratzeren kontra daudela, baina hotelaren kasua bereziki aipagarria dela: "Abisurik gabe jakinarazi zieten kaleratzea; 00:30ean, txanda bukatu eta gero, bulegora igotzeko eskatu, eta bertan eman zieten kaleratze gutuna", argitu dute CCOOtik. Langileen esku-bideak defendatzeko hau guztia epaitegira eroango dutela gaineratu dute sindikatutik.

GOIENA Mondragon Hotelarekin harremanetan jarri da,



Egun hauetan herriko hainbat tokitan pintadak agertu dira. | IMANOL GALLEGO

baina bertako arduradunek uko egin diote hitz egiteari.

Tabernaren berrantolaketa

Kaleratutako hiru langileak zerbitzariak ziren, eta, sindikatutik jakinarazitakoaren arabera, "langile gutxiagorekin zerbitzua mantentzeko beheko solairua berrantolatu eta barra

txikiagoa jarri dute". Sindikatuaren arabera, "ez dira lanorduk errespetatuko".

Herrian agertu diren pintadekin zerikusik ez dutela argitu ostean, elkarretaratzeak egingo dituztela aurreratu dute: "Auto karabana egingo dugu laster, baina oraindik ez dugu data zehaztu".

NERE 'ARRASATE PRESS' ZAHARRAK

SERGIO AZKARATE | blogak.goiena.net/herearrasatepresszaharrak/ | twitter.com/arrasatepress

erreportaiak

"Santo Tomas" baserriaren jaiak

"Santo Tomas" baserriaren jaiak... (text continues with details about the festival and the newspaper's coverage)

ARRASATE PRESS 12

Jon Igoa, etorkizunaren zain

den igandean Sansek 5 eta... (text continues with a profile of Jon Igoa)

Jon Igoa, Errelera saltatzeko prest

TXALOAK ETA TXISTUAK



GOIENA

"Jokabide eskasa"

Horrela definitu du arrasatear batek Ferrerías kalearen eta Zurgin kantoioaren arteko bidegurutzean zapatuan aurkitutako panorama. Lekukoak aipatu moduan, zabor poltsa apurtuta zegoen, eta, argazkian ikusten den moduan, zaborra oso sakabanatuta. "Hondakinen auzia herritarren ahotan ibili arren, jende askok oraindik jokabide eskasa dauka, ez dira ordutegiak errespetatzen, eta horregatik gertatzen dira honelakoak".

Santamas eguneko ferixie desagerketako puntuen egon zan

1988xen, nobedade moduen, kuadrilliek herritarrei eskatu eutzien Santamasetan basarritar jantzitze urteteko. Pentsau... gaur egun askok eta askok urtetan daue holan jantzitze.

Hala be, 70eko hamarkadan, Santamas egune lanegune zan, eta ferixie desagerketako puntuen be egon zan. 80ko hamarkadan, baiñe, indderra hartu euen barriro. Oin dala 25 urte be sinbolo nagusi bi eukien jaixok: txistorrie eta txarrixe, zelan ez. Horrei eutsi egitten dutzou!

Jon Igoa futbol jokalarixe, "ume mimaue"

Laugarren denporaldixe zan Jon Igoa mondrauetarrandako Sanse taldien. 22 urte zittuen eta ordureko pare bat partidu jokatute euken Realakin. Batzuek esaten euen John Toshack entrenadorien "ume mimaue" zala.

Igoak klaru euken gatxa zala Realien jokaketie: "Ezin da lasaitu, jo eta ke jarraitu behar eguneror".

3. zenbakixe 1988-12-16



Langileak lanean Errekalde auzoan egubakoitz goizean. | MIREIA BIKUÑA

Errekalde eta Aozaratza berritzeko lanak, hasita

Lau hilabete iraungo dituzte Errekaldeko 4. fasekoak, eta hiru Aozaratza kaleko zorua aldatzekoak

TXOMIN MADINA | OÑATI

Herriko bi gunetan berriztatzen lanak egiten hasi dira azken asteotan. Errekalde da horietako bat. Oinezkoendako ibilbide nagusiak eta etxe atarien artean dauden espazioak berrituko dituzte auzo horretan. Aozaratza kalea da beste gunea. Egungo asfalto geruza kendu eta galtzadarri formakoa jarriko dute han.

Oinezkoen ibilbideak

Errekalde auzoko lanei buruz, 4. fasean sartu dira dagoeneko. 2010ean eta 2011n auzoari buelta ematen dion bidea eta espaloiak berritu zituzten. 2012an, Errekalde auzo eta Bakardadeko Ama kale arteko gunea izan zen berritu zutena eta orain, lanak oinezkoen ibilbide nagusiak eta etxe atarien artean dauden espazio

irekietako zorua berritzeko egingo dituzte. Zorua berritzeko bi zoru mota erabiliko dituzte: oinezkoendako bakarrik diren gunekoak izango da bat, eta bestea guneko mistoetarako, hau da, oinezkoendako zein ibilgailuendako direnak bereizteko.

Oztoporik gabeko ibilbideak ere egokituko dira auzoko 43, 45 eta 47 zenbakidun atarietara iris-

teko. Baita 35 eta 37 atarietako blokeen atzean dauden igogailuetara iristeko ere. Horretarako, dauden aldapak arinduko dituzte eta paretan diseinuak aldatu eta barandak jarri ere egingo dute. Auzoan dauden jarleku zaharrak ere kendu egingo dituzte, aparkalekuetako marra zuriak margotu eta baita led teknologia-dun farola berri batzuk jarri ere. Urgain-Errekalde eskolako sarrerako aparkalekua ere berritu egingo dute, bide batez. Lanak Ugarte eraikuntza enpresak egingo ditu eta ia 151.000 euroko aurrekontua dute, BEZ kanpo. Lau hilabete izango ditu enpresa horrek Errekalde berritzeko lanak bukatzeko.

Galtzadarri geruza

Aozaratza kalean hasi dituzten lanak, berriz, lurreko zorua aldatzeko lanak dira. Egun dagoen asfalto geruza kendu eta galtzadarri formako asfalto geruza berria jarriko dute, hain zuzen, kale horretan, Atzeko kalean dagoen moduko zorua, alegia. Lanak bukatu ostean, oinezkoek izango dute lehenetsia eta horretarako, piboteak jarriko dituzte Anduaga altzari dendaren aurrean. Horrela, lanak bukatzean, kale horretan garajeak dituzten bizilagunak sartu ahal izango dira bertara eta ezingo da kalean aparkatu. Era berean, Anduaga dendaren aurrean dagoen aparkalekua berrantolatuko egingo dute eta sei ibilgailuendako egokituko dute. Zoladura lanak aprobetxatuz, ur hornidura sarea eta euri uren hustubideak berrituko dituzte, baita fatxadetan dauden argindar eta telefonia sarea lurperatu ere. Kaleko argiztapena led motako ardiekin berrituko dute. Eguralur ari da lanak egiten eta 194.000 euroko aurrekontua du. Hiru hilabete iraungo dute.

Ziklo krosetako Gipuzkoako txapelketa izango da domekan

Ziklo-krosetako Gipuzkoako txapelketa jokatu da Oñatin datorren domekan, hilak 22. Aloña Mendiko txirrindularitza sailak antolatuko du eta parte hartuko duten txirrindularien artean lehiatuko dira oñatiarrak ere. San Martinen izango da proba. Arrikruz-Aloña Mendi ziklo kros taldeak urrian hasi zuen hiru-garren denboraldia.

Mugikortasun foroak bigarren bilera egingo du eguaztenean

Mugikortasun foroak bigarren bilera irekia egingo du aste honetan. Etzi izango da, eguaztana, 19:00etan udaletxeko osoko bilkuren aretoan. Lehen saioan egungo mugikortasunaren diagnosiaren aurkezpena egin zuten eta bigarren saio honetan, mehatxuak eta ahulguneak mahai gainean jarri eta helburu edo estrategiak proposatu zituzte.

Azaleko tratamenduen eta automakilaje ikastaroa gaztelekuan

Azaleko tratamenduari eta norbera nola makilatu ikasteko ikastaroa antolatu dute gaztelekuan. Bi arlo horietako azken joerak zeintzuk diren ere azalduko dituzte. Egubakoitzean (18:30etik 19:30era) eta zapatuan (11:30etik 12:30era) izango da. 679 53 58 88 telefono zenbakira deituta eman behar da izena.

NIRE USTEZ

LIDE OSINAGA



Aukera ona Gabonetan

Ez dakit ze izen eman nire buruari, artista, artisau, *craft*... Egun, horiek dira beste askoren artean nik egiten dudana azaldu guran erabiltzen diren hitzak.

Askok jakingo duzuen moduan, eskuz egindako osagarriak egiten ditut, eta plaza-rik plaza horiek ezagutarazi eta saltzen saiatzen naiz.

Azken denboraldian tendentzia, joera, aldaketa bat ari naiz ikusten, seguru aski krisiaren ondorioa izango da...

Edo agian ez.

Baina atzera bueltan goazela esaten dute (atzera? Nik aurrera esango nuke)... Lehen horrenbeste ez bezala, orain

berrito bertakoa, etxekoa, eskuz egindakoa, esfortzua etab. baloratzen hasi gara. Gero eta errazagoa da 0 Kilometro izena hartu duten dendak edo azokak ikustea. Hau da, artisauen lanak edo produktu ekologikoak, naturalak, saltzen dituzten tokiak aurkitzea. Eta gero eta gehiago gara horrekin disfrutatzen dugunak.

Hala ere, asko dago oraindik egiteko...

Baina, ze aukera hobe Gabonetan aurrerapauso bat egitea baino?

Zergatik ez ditugu erosten opari, apaingarri edo jakiak etxe ondoko dendan txikian? Edo artisaua den lagunari?

Zergatik ez diogu ematen denon artean bultzada bat honi guztiari?

"Atzera? Nik aurrera esango nuke"



JOSE DE AZPIAZU MUSIKA ESKOLA

Oñatiarren doinuak Arrasateko soinu lehian

Oñatiko Jose de Azpiazu Musika Eskolako kideak Arrasateko kaleak alaitzen izan ziren hilabete hasieran, Arrasaten ospatu zuen nazioarteko akordeoi lehiaketan. Joan den urtean bezala, aurten ere Jose de Azpiazu Musika Eskolako triki-pandero eta eskusoinuko talde mixtoak gonbidatu gisa alaitu zituen hango kaleak. Abenduaren 7an izan zen, zehazki. Hanzhi Wang txinatarrak irabazi zuen lehiaketako Arrasate Hiria.

ESKORIATZA

Atxorrotzi etekin turistikoa atera gura diote

Aurtengo indusketen eta datorren urteko asmoen berri emango du Iñaki Sagredo bihar Ibarraundin

MIRIAN BITERI | ESKORIATZA

Aurten ere indusketa arkeologikoak egin dituzte udaberri partean Atxorrotzen, eta, bihar, martitzena, han aurkitutakoaren berri emango du indusketetan parte hartu duen Iñaki Sagredo historialariak. Ibarraundin egingo du berbaldia, 18:30ean.

Sagredok azaldu digu aurten ere elementu "oso garrantzitsuak" topatu dituztela, eta horiei esker agerian geratu dela Atxorrotzeko

gunea Erdi Aroan baino askoz lehenago hasi zirela erabiltzen. Horren harira, honakoa azaldu du: "Uste genuena baino askoz zaharragoa da Atxorrotz, ingurune horren erabilerari dagokionez. Erromatar eta Burdin aroetan ere bizitza zegoen han. Esaterako, zeltar garaiko krisketa antzekoa topatu digu aurten; horrek agerian utzi du Atxorrotz erabiltzen zela Kristo aurreko 500. urte inguruan.

Ez dakiguna da zertarako". Berbalbian, aurten aurkitutako hainbat elementu erakutsiko dituzte, eta auzolanean ibili direnen lana ere txalotuko dute.

Bideak markatu barik

Baina, esan bezala, Atxorrotz ezagutarazteko beharra ikusten dute, eta biharko hitzaldian, "etekin turistikoa" ateratzeko aukeraz egingo dute berba. Sagredok gogorarazi du gaur egun Atxorrotzera joateko bideak ez daudela seinaleztatuta, eta, hortaz, eskoriatzarrak ez direnendako ez dela samurra haraino igotzea. Buelta eman nahi zaio horri, eta, esaterako, dauden bide guztiak zehaztu eta ezagutaraziz.

Honakoa aipatu du historialariak: "Orain arte indusketetan egin dugu lan, eta datozen bi urteotan ere horrelaxe jarraituko dugu, hitzartuta daukagulako. Baina, horrez gain, etekin turistikoa ateratzeko lan egin behar dugu, eta biharko hitzaldian, herritarren ideiak entzun nahi ditugu, askariaz disfrutatzen dugun bitartean".



MIRIAN BITERI

Erdiko kalea itxita zapatura arte

Oinezkoek erabiltzeko egokitzapenak egin behar dira, eta, hortaz, Eskoriatzako erdiko kalea itxita dago zapatura arte. Hori dela eta, saihezbidea erabiltzea eskatu badute ere, ordezko bi bide erabil daitezke herri barruan: Arrasaterako noranzkoan, San Juan kaletik, Olazarre; eta Gasteizerako noranzkoan, Arbiñostetik, Aranburuzabala kalera.

OHARRAK

TXISTORRA JANA

Urtero moduan, Gabonetako txistor-jana dute Eskoriatzako erretiratuek. Eguenean, abenduak 19, 18:30ean elkartuko dira erretiratuek kultura etxean duten tabernan. Olazar erretiratuen

elkartetik gogorarazi dute bazkide txartela aurkeztu beharko dela horretarako.

OLENTZERORI GUTUNA

Tortolis ludotekan ekintza bereziak egingo dituzte egunotan.

Eguenean, esaterako, Olentzerori gutun berezia idatziko diote umeek, 18:00etan. Eta egubakoitzean, hilak 20, oster, disko festa eta merienda egiteko asmoa dute ordu berean neska-mutiko eskoriatzarrek.

AXTOKIEN ESKAINTZAK

Eskoriatzako Axtoki merkatarien elkarteak ekimenak egingo dituzte. Gaur hasi eta datozen asteotan bitartean, eskaintza bereziak eskainiko dituzte elkarrekin hainbat kidek.

ARETXABALETA

Martxan da Gabonetako erakusleho lehiaketa

Bi sari daude: euskarazko Gabon mezurik onena eta erakuslehoaren kalitatea eta originaltasuna

M.B. | ARETXABALETA

Aurten ere antolatuta dute Aretxabaletak Udalak Gabonetako erakusleho lehiaketa. Parte hartzeko ez da izenik eman beharko, herriko merkataritza-establezimendu guztiak hartuko dituztelako kontuan.

Asteon bertan eman diote hasiera lehiaketari, eta hilaren 30era arte iraungo du. Sarietarako dagokienez, Udaletik jakinarazi dute bi sari "sorpresa" izango

direla; hain justu ere, euskarazko Gabon mezurik onena duen erakusleho sarituko dute, batek, eta, bestetik, erakuslehoaren kalitatea, publikitate-mezuaren imajinazioa, eraginkortasuna eta originaltasuna ere sarituko dituzte.

Ohiko artikulua

Herriko komertzioetako erakuslehoek euskarazko mezua izatea



laz Belar Metak irabazi zuen lehiaketa. | ARETXABALETAKO UDALA

kontuan hartuko dute epaimahai-kideek, eta, horretaz gainera, erakuslehoan denda horretan saltzen diren ohiko artikulua izatea ere derrigorrezkoa izango da. Sariak, berriz, hilaren 30ean

bertan banatuko dituzte. Joan den urtean Belar Metako kideek irabazi zuten lehiaketa; bada, hain zuzen ere, haiek pasatuko diete lekukoa -edo plaka- aurtengo irabazleei.

ARETXABALETA

Leizarra musika eskolak kontzertua emango du bihar

Aretxabaletak Leizarra Musika Eskolak Gabonetako kontzertua eskainiko du bihar, martitzena, 17:00etan, parrokiaren. Musika eskolako instrumentu guztiek hartuko dute parte, hala nola flauta, gitarra, trikiti, pandero, piano, akordeoi, txistu, klarinete, saxofoi... eta baita abeslariak ere. Taldeak izango dira emanaldi gehienak.

Ostegun Akustikoak amaitzera doa Saiatu Berriz taldearekin

Asteon amaituko da Ostegun Akustikoak egitaraua. Lau garren emanaldi horretan, Saiatu Berriz Usurbilgo bikoteak joko du Dagda tabernan, 21:30ean. Josu Furundarenak (gitarra) eta Garazi Artolak (ahotsa) Urrezko Muskerrak taldean ezagutu zuten elkar; esandako taldea banatzean, biek pop abestien bertsoak euskaraz eta ingelesez kantatzen jarraitu zuten; eta eguean horixe egingo dute.

Izena eman daiteke hilaren 30ean Bilboko PINera joateko

Hilaren 30erako Bilboko PINera irteera antolatu dute 8 eta 12 urte bitarteko neska-mutikoendako; 10:00etan irtengo dira Azbetik, eta 19:00etan bueltatu. Interesatuak Aretxabaletak Algara ludotekan eman behar dute izena hilaren 20a baino lehen. Bazkideendako 11 euro balio du irteerak; gainerakoendako, 12 euro.

NIRE USTEZ

KATALIN ANTIXIA



Barik geratu

Barik geratu dala. Lan barik, ezer be barik. Diru barik, nora jo jakin barik. Errutina barik. Kalera urteteko be gogo barik, eta zerbait asmatzen hasteko indar barik. Leku barik. Laguntza barik. Gainera, azkenaldixen ze pasauko eta kotxie be hondatu. Hor geratu da ba kotxe barik, Gabon barik eta baita opor barik. Derrepentien.

Eta... ba begitu, problema batzuk be gutxitute. Nori ze erregalau eta gasolina kontuek eta horreik danok be fuera. Oingo ospakizunek eta be, zaindu ahal, pasau barik. Eta total hortarako, egin leikela igual-igual alkarrekin juntau barik.

Denpora barik dabilela lan barik geratu zanetik. Eta ordutik, ezin geratu inora be fan barik. Eta gainera, denporie galtzeko

inungo gogo barik. Ondio planak itxi barik, erabakixek hartu barik. Behin ausartute, hango eta hementi atiek jo eta jo lotsa barik. Eta ingelesez zelan moldatzen dan oin arte jakin barik! Ideia bat bera be baztertu barik, nok daki, gure aittejaun eta amandrie hasi ziela benetan ezer be barik.

Finalak be jokatu leikez sekula txapela jantzi edo erantzi barik.

Langile eta langabeendako datorren urte hasierako ikastaroak prest daude

Miguel Altuna institutuak 17 ikastaro prestatu ditu eta 12 eta 90 ordu bitartean iraungo dute

IURE EIZAGIRRE | BERGARA

Miguel Altuna institutuak prest dauka datorren urteko lehen hilabeteetarako langile eta langabeendako ikastaroen zerrenda. Lau arlotako ikastaroak eskainiko ditu: fabrikazio mekanikoa, elektrizitatea, administratza eta informatika, eta hotzeko estanzazioak.

Gabonak amaitu bezain pronto hasiko dira lehen ikastaroak; izan ere, urtarrilaren 8an ekingo zaie *Txirbil-harroketa bidezko mekanizazio fabrikazio-prozesu osagarriak, CAD-CAM programak erabiliz fabrikazio mekanikarako dokumentazio teknika lantzea eta Instalazio automatizatuak muntatzea* ikastaroei.

Guztira, 17 ikastaro prestatu ditu Miguel Altuna institutuak, 12 eta 90 ordu artekoak. Denak urtarila eta maiatza artean eskainiko dira eta Hobe-tuz programaren bidez %100 diruz lagunduak izango dira.

Informazio gehiago eskuratu edo izena emateko, 943 76 70 49 edo 688 81 50 70 telefonoetara dei edo ikastaroak@imaltuna.com helbidera idatz daiteke.

Makillaje ikastarorik ez

Bizikasiren abenduko programan azala zainduz makillatze saioa zegoen aurreikusita gaurko eta biharko, baina bertan behera geratu da. Elikagaien manipulatuak ikastaroko azken saioa, aldiz, gaur izango da.



Miguel Altunan langabeentzat emandako ikastaroetako bat. | GOIENA

NIRE USTEZ

IGOR OYARBIDE



Mito baten heriotza

Nelson Mandela-Madiba, Hegoafrika argiztatu duen argia eta planetan hainbeste miresten eta adostasun sortu duena, itzali egin da. Ezinbestean hegoafrikarrek iraganera begiratzen dute, zeren Mandelaren lidergoak bizirik dirau gizartearen.

Bake gizona izan zen, baina baita CNAko beso armatua eta ikono bat, 27 urte kartzelan egon ondoren. Baina Mandela ere bada negoziatzailea eta lider karismatikoa.

Lehendakaritza lortu zuen eta trantsizio zail bat kudeatzen jakin zuen, oposizio alderdi guztiak batuz. Aldi berean, apartheid-aren politikak bere ekonomian masakratutako herrialde bat zutitu zuen. Berrau-

taketa ziurtatuta izanik, lehendakaritza aldendu nahi izan zuen.

Berak aitortu bezala, dena ez da "argia" izan bere gestioan. Bere aurkakoez gogoratzen dituzte bere loturak partidu komunistarekin eta garaiz hiesari buruz hitz egin ez izana.

Nahiz eta gutxik jarri zalan-tzan haren ahalegina gerra zibila saihesteko 90eko hamarkadan, Hegoafrikak munduko gizarte-rik ezberdinena izaten jarraitzen du. Adibide gisa: zuri batek beltz batek halako sei irabazten du.

Mandelaren ondarea izugarria da eta orain da garaia lan egin eta plazaratzeko gure gizartearen dauden desberdintasunei aurre egiteko lagungarriak direnak, baita bere lana jarraitzekoa ere, mundu gizatiago eta bizigarriago bat eginez.

"Hegoafrika argiztatu duen argia, itzali egin da"

Idea Zaparrada: 6 ideia eta 13 proiektu aukeran

Herritarrek hilaren 17ra arte izango dute lanak bozkatzeko aukera

MONIKA BELASTEGI | BERGARA

"Oso maila polita dute lanek; bereziki proiektuek dute maila polita. Gustuen arabera ere bada, baina niri, batzuk oso interesgarriak iruditu zaizkit. Egingarriak". Jaione Isazelaia alkatearen hitzak dira horiek, Idea Zaparrada lehiaketan jasotako lanen harira.

Jasotako kopuruari dagokionez ere pozik agertu da Isazelaia alkatea. 15 proiektu eta 12 ideia aurkeztu dira, nahiz eta 13 proiektu eta sei ideia sartuko diren lehiaketan -bi hautagaitzak atzera egin dute eta epaimahaiak balioz kanpo laga ditu beste bost.

Askotariko lanak jaso dira, gainera: "Badira hirigintza arlokoak, gizarte arlokoak, jaien ingurukoak, herriaren izaeraren

gainekoak... denetarik dago", azpimarratu du Jaione Isazelaia. Ondoko taulan ikus daitekeen moduan, aisialdi eta kulturarako


azpiegitura berrien gaineko proposamenak daude, bidegorriaren gainekoak, txakurrendako guneen gainekoak, herriko ondarearen

IDEIAK



1. IDEA: PUTZURIK EZ SORTZEKO BIDEA HANDITU

Iralako iturri ondoan putzurik sor ez dadin, ura joateko bidea handitzea proposatu dute.



2. IDEA: TXAKURRENDAKO PARKEA

Txakurrak libre ibiltzeko eta sozializatzeko parke edo lekuren baten falta sumatzen dute.



3. IDEA: ZIBURUAK BEHAR DIRA MUNIBE PLAZAN

Erdigunerako ziburuak behar dira eta Munibe leku aproposa da. Horretarako eta gehiagorako ematen du.




4. IDEA: APARKATZEKO ARAZOA KONPONTZEKO ESKARIA

Bertsotan, 46 segundoko audioarekin aparkalekuaren arazoa konpontzeko eskatu dute.



5. IDEA: POESIA MUSIKATUZ, HERRIA JANTZI

Kantuetako poesia ezagutzera eman nahi dute euskal iruditeria, sormena eta pentsaera lantzeko.



6. IDEA: UDAN DEBARA JOATEKO AUTOBUSA

Uztailerako eta abuzturako proposatu dute. 10:30ean irten eta 18:30ean itzuli; 3 euro joan-etorria.



7. IDEA: SAN MARTINETAKO DANBORRADA BOROBILDU

Janzkera berritza eta talde gehiagok parte hartu ahal izateko diru laguntzak ematea, besteak beste.

gainekoak, gizarte ongizatearen gainekoak... Orain, horien guztien artean gustukoena erabakitzea baino ez da geratzen.

Bozkatzeko aukera abian


Idea eta proiektu irabazlea erabakitzeke bi balorazio egingo dira. Udal ordezkariekin osatutako epaimahai batek egindakoa, batetik, eta balorazio orokorraren %50 balioko du. Dagoeneko egin da dago eta isilpean mantenduko da. Bestetik, herritarrek ere bozkatzeko aukera izango dute eta horrek ere %50 balioko du. Hain

zuzen, hilaren 17ra arteko epea dute herritarrek bozkatzeko eta horretarako bi modu izango dituzte: alde batetik, *www.bergara.net* webgunearen bitartez bozkatu ahal izango dute ideia eta proiektuak bertan ikusita; bestetik, Udaleko osoko bilkuren aretoan ere ikusi ahal izango dira lanak eta baita bertan bozkatu ere, inprimaki bat bete eta Udaltzaingora eramanda. Hala, Jaione Isazelaia alkateak herritarrek animatu nahi izan ditu bozka ematera, "bai etxetik zein udaltxera joanda".


Aipatzekoa da, gainera, botoa emateagatik zozketa baten sartuko direla herritarrek eta saria eskuratzeko aukera izango dutela. Hiru sari, hain zuzen: herriko denden artean gastatu ahal izateko 150 euroko bonoa; herriko jatetxe batean gastatu ahal izateko 100 euroko bonoa; eta Agorrosin Ekintza Gunerako urte osoko bonoa.

Idea Zaparrada lehiaketako irabazleak sari banaketa ekitaldian emango dira aditzera; abenduaren 23an izango da, 19:00etan, osoko bilkuren aretoan.


PROIEKTUAK



ERABILERA ASKOTAKO GUNEA MUNIBE PLAZAN
Helburua da kultura ekitaldietarako agertoki egonkorra eta umeen aisialdirako gunea estalia jartzea Muniben.



HERRI CUIDA-DANOA
Proiektu hau pertsonen elkarlaguntzarako zerbitzu kooperatiboa diseinatzen datza.



BERGARA 'CROWDFUNDING'
Herritarren, eragileen eta Udalaren artean finantzazio sarea sortu, lanpostuak sortzeko eta tokiko ekonomia bultzatzeko.



AZKEN AUKERA
Elikadura ohitura osasuntsuak eta kontsumo arduratsua bultzatzea da helburua, *slow food* filosofia bultzatuta.



UDAL EKIPAMENDUEN GAINEKO ZENBAIT PROPOSAMEN
Esaterako, pilotalekua erabilera askotariko gunea bilakatzeko proposamena egiten dute.




HERRIKO ONDARE EZ-MATERIALA SARERATU
Herriko ondare ez-materiala, ohiturak, jaiak, artisau teknikak, abestiak... Interneten jartzeko proposamena.



ESTANPAK BERGARAKO HISTORIAZ
2018ra bitartean beteko diren urtemugak gogoan izateko hainbat ekintza proposatzen dira.



ALKABIETAKO SEGURTASUNA HOBETU
Bereziki Alkabetako estugunea zabaltzea proposatzen da, 3 metroko zabaleran autoek eta oinezkoek pasa behar dutelako.



MIZPIRUALDE INGURUKO IRISGARRITASUNA HOBETU
Helburua da egotzako erabiltzaileen sarrera-irteeretakoz Mizpirualde kalea ez den beste bi ibilbide egitea.



BIDEGORRI SAREA BUKATU ETA SEGURTASUNA BERMATU
San Martzial kalean espaloia oso estua da oinezko eta bizikletendako. Bizikletendako bide berria nola egin diote.



ERRESPETURAKO SINBOLOAK
Artearen bidez, bizikidetzara bultzatu nahi da. Errespeturako sinboloak sortu eta errespeturako espazioetan jarriko dira.



BERGARA KOLORETAN: FATXADEN MAPA TERMOGRAFIKOA
Helburua Bergarako herritarrei euren etxebizitzaren neurri kanpoko energien kontsumoa erakustea da.



KAKALARDOA PLAZAN
Herriko espazio publikoak, jantoki bilakatzeko, gailu mugikorra egitea da proposatzen dutena.



Bergarako Alai taldea eguazteneko emanaldian, Espaloian. | LZ

ELGETA

Barikuan egindako luntxarekin agurtu dute erretiratuek aurtengo Kultura Astea

Oñatiko erretiratuen antzezlan, bingoa, Bergarako Alai taldearen emanaldia eta urte amaierako luntxa izan dituzte 170 bazkidezik gora dituen elkartearen

LARRAITZ ZEBERIO | ELGETA

Abenduan egin ohi dute Kultura Astea Elgetako Xalbadorpe erretiratuen elkartearen. Eguaztenean, Bergarako Alai taldearen bisita izan zuten, eta ordubeteko musika emanaldiaz gozatu zuten elgetarrek. Euskal Herriko zein kanpoko abestiak eskaini zituzten bergararrek.

Barikuan eman diote amaiera aurtengo Kultura Asteari. Parte-hartze polita izan duela adierazi du Xalbadorpeko presidente Pedro Mari Uberak. Egitarauan, denetarik izan dute. "Ikusi Makusikoez antzerkia ekarri zuten, bingoa ere egin genuen. Amaitzeko, Bergarako Alai taldea eta luntxa izan ditugu", esan du.

170 bazkidezik gora

Pedro Mari Uberak jakinarazi duenez, bederatzik lagunek osatzen dute Xalbadorpe erretiratuen elkarteko zuzendaritza batzordea, baina elkarteak 170 bazkidezik gora ditu. "Denendako moduko Kultura Astea antolatzen saiatzen gara. Kontuan hartu behar da 80 urtetik gorako 63 bat bazkide ditugula".



Erretiratuek luntxa egin zuten barikuan Ozkarbin elkartearen. | LZ

LEINTZ-GATZAGA

Labidea denda itxi egingo dute, kudeatzaile aldaketarengatik

Aitziber Gorosabelek bertako jarduna utzi egingo du; haren ordezkoa izendatu gura dute

UBANE MADERA | LEINTZ GATZAGA

Oraingo hilabete honetan, abenduan, bukatuko du hamar urte baino luzaingo bete duen jarduna Aitziber Gorosabelek, Labidea dendako arduradunak. Eta horren eraginez, logikoa den moduan, Labidea saltokia bera itxi egingo dute, harik eta ordezkor arduraduna izendatu arte.

Izan ere, Leintz Gatzagako Udalaren asmoa da ahalik eta lasterren izendatzea Gorosabelen ordezkora, eta modu horretan, Labidea denda ahalik eta denbora txikienean egotea itxita.

Hori horrela, Labidearen kudeaketa egiteko bete behar diren baldintzen plegua osoko bilkuran landuko dute. Eta hori

gaurko, astelehena (08:30ean), deituta zegoen osoko bilkuran egingo dute.

Plegua, udaletxean

Behin plegua onartuta, bertan zehaztuko dute Labidearen kudeaketaz arduratzeko interesa izan dezaketenen euren burua aurkezteko ze epe izango duten. Eta baldintzen plegua bera Leintz Gatzagako Udaletxeko idazkari-tzan kontsultatu ahaliko da.

Guztia ondo bidean, eta gaiak duen presa kontuan hartuta, beraz, gaur bertan onartuko dute plegu hori eta asteon jarriko dute gutz-tion eskura kontsultatzeko moduan.

ARAMAIO

Murugainen egindako indusketa lanen emaitzak, paneletan

Herrian eta Murugaingo gainean panelak jarri dituzte, aurkikuntzen berri edonork izan dezan

ANE ETXEBERRIA | ARAMAIO

Bi urtez lanean aritu ondoren, Murugainen egindako indusketa lanek fruitua izan zuten; izan ere, auzolanean egindako ikerketek Burdin Aroko harresia eta gerra zibileko trintxerak ezagutzera eman zituzten. Horiek guztiak herritarrengana helarazi eta difusio lanak egiteko asmotan, Aramaioko Udalak Ondare Babeserako enpresarekin batera, panelak jarri ditu. Bat Aramaion, herrian bertan jarri dute eta beste bat Murugainen. Etor Telleria arkeologoaren esanetan, euren asmoa "arkeologia lan irekia egitea izan da; horregatik egin ditugu auzolanean lan asko, eta egini-ko guztia nolabait ezagutzera

eman nahi izan dugu". Herri-tarren harrera ere oso ona izan dela adierazi du Telleriak, eta "gertuko lana" izan dela gaineratu. Panel horietan, beraz, informazio zabala dago, lanen eta aurkikuntzen deskribapena egiten da irudiz jantzita.

Datorren urteari begira

Datorren urteari begira proiektua berriz aktibatu nahi dutela adierazi du Telleriak: "Murugaingo lurra administratiboki bi probintziaren artean banatuta daude: Gipuzkoa eta Araba. Bi urte hauetan Arabako zatia ikertu dugu eta gure asmoa datorren urtean Gipuzkoakoa ikertzea da"; hori lortzeko lanean hasiak dira jada.



Panelak jartzen Murugainen. | ONDARE BABESA

ANTZUOLA

Landatxoperen jarduerak interesa piztu dute herrian

Astelehenetik eguenera egindako hitzaldi eta tailerretan ia 40 pertsonak hartu zuten parte

IURE EIZAGIRRE | ANTZUOLA

Landatxo erretiratuen elkarteak *Kontsumorako prestakuntza adinekoen zentroetan* jardunaldiak egin zituen joan den astean. Bi hitzaldi (*Kontsumo iraunkorra* eta *Banku zerbitzuak*) eta beste horrenbeste tailer (*Produktuen bermea* eta *LTZ*, eta *Banku zerbitzuak*) eskaini zituzten hainbat adituk eta herritarren interesa piztu zuten; izan ere, batez beste 35-40 pertsonak hartu zuten parte ekintza horietako bakoitzean.

Abenduko programaren barruan, karta txapelketa ere antolatu zuen Landatxo erretiratuen elkarteak. Puntuari zortzi bikote lehiatu ziren eta Juanita Zabalo eta Miguel Jauregi izan ziren irabazleak, briskan Mari Kruz Lezeta eta Nieves Saralegi izan ziren garaile

zazpi bikoteraren artean, tutean Mariano Urrutxi eta Felix Alonsok irabazi zuten beste horrenbeste bikoteraren artean eta musean, aldiz, Manuel Garitano eta Migel Jauregi izan ziren lehiatutako bost bikoteetatik onenak.

Xinkonako ikastaroak

Gabonak ate joka ditugun honetan, Xinkonako datorren urterako eskulan ikastaroa prestatzen ari dira. Gaur irekiko dute izena emateko epea eta abenduaren 24a arte egongo da zabalik. 2014. urtean 4 urte beteko dituzten haurrek eta haiek baino helduagoek eman ahal izango dute izena ikastaroetan. Saioetan, ohi bezala, josten, puntua eta kakorratza egiten zein material berrerabilgarriekin askotariko gauzak egiten ikasiko dute.



Jose Antonio Altuna

JMA enpresako bazkidea

Lanlekue be euskaldundu daigun

Aspaldi igerri geuen geure enpresie euskaldundu biherra. Eskolie, kulturie, astialdixe... euskaldunketako pasuek emuten ebitziela; hedabide euskaldunek sortzen ebitziela... Eta lanlekue be euskaldundu biherra euela. Holaxe hasi gitzen oin dala 20 urte baiño gehixau geure enpresan. Asko aurreratu dogu. Egun, JMAREN barruko jardunien, hizkuntza nagusixe euskera da eta kanpoko jardunien, aukerak dauzenien, euskerari sarbidie emuten dutzogu.

Euskera da gure erreminttarik inportantiena *gure asmoak* herri moduen betetzeko. Bestetik, euskeraren erabillerie geure lanlekuetan bultzetu gure dogu. Horretan lagungarri dittugu eskualdeko euskerazko hedabidiek: Goienakuek.

**Goienari esker
ohittu gare asko
euskeraz leiduten**

Goguen dauket *Arrasate Press*-en sorrerie. Eta baitte Goienarena be. Urrats haundixe izen zen baillara osorako euskerazko komunikaziño proiektue. Euskeraz leiduten

ohittu naz Goienari eta, aurretik, *Arrasate Press*-ei esker. Konsumiduten dittut gaur egun be. Geure inguruen, ezagunen, enpresen... barri Goienari esker jasoten dogu. Aurrerantzien be holan izen dain, lagundu daixogun!

GOIENAK BEHAR ZAITU!

GOIENA KLUBEKO BAZKIDE EGITEKO TELEFONOA: 943 25 05 05

goienakluba[™]
Euskara irabazle, denok irabazle!

KIROLA



Haurrak sariak jasotzen. | J. ARANTZABAL



Lasterketako une bat. | J. ARANTZABAL



Korrikalari bat lasterketan zehar zaletuei kasu egiten. | JOSETXO ARANTZABAL



Txikienak (bost urte) helmugara lehenak heltzeko.

SANTAMASETAKO KROSA

Imanol Goñi eta Ane Zabala izan ziren azkarrenak krosean

- ▶ Garraitz eta Ziga gym taldeak izan ziren Koadrilen lehiako irabazleak
- ▶ 120 hurrek hartu zuten parte Herriko plaza inguruko lasterketetan

IURE EIZAGIRRE | ARRASATE

Bailarako korrikalarien ahalegi-ahalegin, aurten ere Lekeitiora joan da Santamasetako krosek garaipena, Imanol Goñi izan zen eta helmugatik igarotzen lehena 20:48ko denborarekin. Haren atzetik heldu zen Beñat Arnaiz aretxabaletarra, eta Ander Okamika lekeitiarra izan zen hirugarrena. Emakumezkoetan, bestelakoak izan ziren gauzak

eta Ane Zabala arrasatearra izan zen garaile. Atzetik Nerea Arregi sailkatu zen eta Raquel Alonso hirugarren izan zen.

Iazko kopurutik hurbil, baina parte-hartzaile gutxiago izan zen Santamasetako XXXVI. Krosean -Enrike Kabiketaren XI. omenezkoan: 180 korrikalari. Horietatik 146k amaitu zuten lasterketa.

Ander Okamika lekeitarrak azkar ekin zion lasterketari eta

lehen itzulirako bera zen lasterketa-buru. Metro gutxira, baina, lau korrikalariko taldea zuen atzetik eta hor zihozan Imanol Goñi irabazlea eta Beñat Arnaiz bigarren sailkatua. "Arnaiz Okamikaren bila irten da hirugarren kilometroan eta berarekin joan naiz. Azken txanpan aurrea hartu diot eta azkeneko bueltan abantaila hartu dut. Distantzia neurtzen joan naiz, atzera begira",

azaldu zuen Goñik atzoko lasterketa amaitu ostean.

Ane Zabala arrasatearra pozik zegoen egindako lanarekin; hasieratik joan zen aurrean beste bi korrikalarirekin batera eta metroak egin ahala tartea hartzen joan zen. Bakarrik bukatu zuen lasterketa, 25:33ko denborarekin.

Koadrila artekoa ere Lekeitiora Krosa amaituta, talde bakoitzeko

bost onenen denborek erabaki zuten koadrilen arteko lehia. Gizonezkoetan Garraitz taldea izan zen lehena eta ondorioz, Lekeitiora joan zen bildotsa. Antxintxika taldea izan zen bigarrena eta Arrasate Runners hirugarrena. Emakumezkoetan, Ziga gym taldea izan zen garaile eta Oin azkarrak bigarren.

Haurrak ere pozik

Atletismoarekiko zaletasuna bultzatzea eta giroa sortzea du helburu Santamasetako krosak eta nagusien lasterketaren aurretik 120 haur inguruk hartu zuten parte eurentzat antolatutako lasterketetan. Etorkizunean eurak izango dira antolatzaileek mantendu nahi duten izaera herrikoari eusteko arduradunak.



IMANOL GOÑI
LEKEITIO

"Ondo joan da lasterketa, bizia izan da, ez dakit zein erritmotan egin dugun baina benetan azkarra izan da. Entrenatu dugu baina kostatzen da, gogorra izan da. Koadrilakako lehia ere irabazi dugu eta datorren urtean ere etorriko gara".



ANE ZABALA
ARRASATE

"Ondo ibili gara, oso polita izan da. Gainera, korrika egiteko giro ederra egin du. Hasieran denok elkarrekin joan gara, hiru neska batera, eta gero aurrea hartu dut. Ilusioa egiten dit irabazteak, lasterketa gutxi egiten ditut-eta".



ALBERTO OZAETA
ARRASATE

"Lasterketa gogorra izan da, beti hasten gara oso azkar eta gero kostatzen da amaitzea. Laugarren buelta soberan dago. Gu taldean etorri gara eta azkenean oso ondo eutsi diogu. Urtero hartzen dugu parte".



BEÑAT ARNAIZ
ARETXABALETA

"Bigarren geratu naiz azken momentuan; hasieratik Ander Okamika joan da aurrea eta atzean lau edo bosteko taldea egin dugu. Tartea handitzen ari zen eta irabaztera joan behar banuen eraso egin behar nuela erabaki dut".



MAITANE RUBIO
ARETXABALETA

"Ondo joan da lasterketa, gustura geratu naiz egindako lanarekin nahiz eta apur bat nekatuta bukatu; hobeto amaitzea espero nuen. Duela bi urte ere egin nuen eta orduan baino hobeto ibili naiz. Berriro ere hartuko dut parte".

25 | **SASKIBALOIA** | MUK bederatzigarren garaipena lortu du

ahaleginean atzoko lasterketan. | JOSETXO ARANTZABAL



Ane Zabala lehena helmugaratzen. | JOSETXO ARANTZABAL



Koadrilen arteko lehiako zein bakarkako irabazleak. | JOSETXO ARANTZABAL

SAILKAPENA

GIZONEZKOAK

- | | |
|------------------------|-------|
| 1. Imanol Goñi | 20:48 |
| 2. Beñat Amaiz | 20:50 |
| 3. Ander Okamika | 21:01 |
| 4. Ibai Errasti | 21:24 |
| 5. Endika Donnay | 22:03 |
| 6. Iker Prieto | 22:12 |
| 7. Jesus Mari Valencia | 22:20 |
| 8. Koldo Itxaspe | 22:22 |
| 9. Mikel Mujika | 22:22 |
| 10. Igor Lazkano | 22:24 |

EMAKUMEZKOAK

- | | |
|--------------------|-------|
| 1. Ane Zabala | 25:33 |
| 2. Nerea Arregi | 26:33 |
| 3. Raquel Alonso | 27:52 |
| 4. Itziar Sanpedro | 29:15 |
| 5. Yolanda Ezkurra | 29:39 |

Aurtengo oparia


argia
*harpidetza egizu
egiozu*
Orain **%50**eko beherapena

harpide berrientzat lehen urtean

hilean 6 € baino ez!

Eskaintza hau
2013ko abenduaren 31n
amaitzen da

Eskaerak:

☎ 943 371 545 | harpide@argia.com | www.argia.com/harpidetza

OHOREZKO ERREGIONALA

Bi gol ikusgarri jasota, merezi ez zuen zigorra ordaindu zuen Aretxabaletak

Partidua berdintzeko ahalegin guztiak eginda ere, Beti Gazte serio ibili zen defentsa lanetan

EMAITZA

ARETXABALETA

2-1

BETI GAZTE

FITXA TEKNIKOA

Aretxabaleta: Asier, Gartz (Fernandez, 82.min), Amutxastegi, Arriaran, Etxabe, Igartua, Imanol (Apraiz, 58.min), Perez (Orueta, 58.min), Arizmendiarieta (Zaitegi, 54.min), Iker Sanchez, Gilen Mar (Bixen, 86.min).

Beti Gazte: Fontan, Arriola (Abuin, 73.min), Etxegarai, Irazoki, Olaizola, Saralegi, Maia, Jon (Flores, 80.min), Unai, Ordoki, Gurrutxaga.

Beste: Zale gutxi batzuen jarrerak ere txartel gorria merezi izan zuen.



Igartua, amorrus, Beti Gazteko jokalar baten aurrean baloiagatik borrokan. | JOSETXO ARANTZABAL

golazo egin zituelako -azkenaldian ez dute besterik jasotzen- eta gero, errenta hori ederki defen-datzen asmatu zutelako.

Grabatzeko modukoak, golak

Partiduko 18. minutuan eman zuen Etxebeste lesakarrak lehenengo kolpea (0-1), kontraeraso baten ostean eskuin hankaz egindako jaurtiketa saretara bidalita. Lehenago, Imanolek barneraketa on bat egin zuen, baina eskuin hankaz ez du ezkerrez duen trebezia. Bada, lehenengo gola ona izan bazen, bigarrenaren jaurtiketa jardunaldiko onenetako bat izango zen, seguru (0-2).

Hala, berdegunean ziren jokalariek sinistu ezinda zeuden, jokoari dagokionez apartekorik egin barik, izandako aukera apurretan Lesakakoek erakutsitako punteriaz. Orokorrean, baina, lehenengo zatia joko aldetik txarra izan zen.

Erasora, ez zegoen besterik

Bigarren zatia hasi eta gutxira egin zuen Perezek esperantza piztu zuen gola (1-2), Sanchezek hasitako jokaldia Gillenek errematatu, eta ia marra gainean Perezek saretara bultzatu zuenean. Ordurako Valle entrenatzaileak erabakia hartua zuen: erasoko artilleria dena berdegunera. Hala, jarraian irten ziren Zaitegi, Apraiz eta Piru, eta hiru defentsen aldeko apustua eginda, Beti Gazte bere zelai erdian sartu arazi zuten. UDako ezin zaie gogo txarra aurpegiratu, ezta motibazio falta ere; behin eta berriro saiatu ziren, baina bolada txarra eteteko zor-teak bizkarra eman zien.

XABIER URZELAI | ARETXABALETA

Ezintasuna eta amorrua, biak batera. Sentimendu horiek batuta erretiratu ziren Aretxabaletako jokalariek aldagelara, epaileak partiduaren amaiera adierazi zuenean. Eta, baliteke epaileak hartutako zenbait erabakik amorrutako sententzia areagotzea, baina gehiago izan zen beste partidu bat zelan joan zitzaien ikustea, kontrarioak apartekorik erakutsi ez zuenean.

Golak, ederrak

Apartekorik ez erakustea, baina, nahiko erlatiboa izan daiteke. Beste norbaitek esango du ea zer gehiago erakutsi behar den kategorian honetan, Beti Gazte bi



Partidua hasi aurretik egindako omenaldi ostean batu ziren erretratutako protagonistak. | JOSETXO ARANTZABAL

Aretxabaletako atletak omendu zituzten

Beti Gazteren kontrako partidua hasi aurretik UDak bost minutu hartu zituen ekimen eder baterako, Aretxabaletako herriak eman dituen atleta onenak omendu nahi izan zituzten.

Hala, Fernando Aguilar *El galgo*, Adolfo Manteca, Belisario Manteca, Lurdes Izurritegi,

Ramon Jauregi eta Joseba Larrinaga omendu zituzten, garai ezberdinetako atletak, eta zenbait orogarrak eman zizkieten euren senideei. Jakin, besteak beste, atleta horiek egindako lorpenak erakusgai daudela Arkupen dagoen erakusketan (abenduaren 30era arte zabalik).



OHOREZKO ERREGIONALA

IMANOL SORIANO

Oiartzunek lau gol Agorrosinen

Bergara ondo aurreratu bazen ere, Oiartzunek ez zuen inongo momentuan amore eman, eta partidua irabazteko gauza izan ziren. Bergarako lehenengo gola Jokinek egin zuen, epaileak oparitutako penaltia saretara bidali ostean. Iñigok egin zuen 2-0koa, eta ondoren, Oiartzunek partidua berdindu zuen (2-2). Bergarak ostera ere aurea hartu zuen, Enekoren bidez (2-3), baina ondoren etorri ziren Oiartzunen bi golak.

ERREGIONAL PREFEREN.

Mondrak puntu bat ekarri zuen Mutrikutik

Sailkapenak erakusten duen parekotasun berbera islatu zuten Mutrikuk eta Mondrak berdegunean, partidua 0-0 amaitu zuten-eta. Eta hori, Mutrikuk hamar jokalarirekin amaitu zuela partidua, baina hori ez zen nahikoa izan kostaldekoen atean saria jasotzeko. Mondrak zazpi puntura du liderra.

Emakumezkoek, 16 jasota

Mondrako emakumezkoek, ostera, errepasso galanta jaso zuten, Gasteizko Aurrera taldearen aurrean hamasei gol jaso zituztelako. Zoritxarreako, oso luzea egin behar zaie denboraldia.



OHOREZKO ERREGIONALA

JOSETXO ARANTZABAL

Aloñak, "Urteko partidu txarrena"

Oñatiko entrenatzaile Andoni Azkargorta ez zegoen gustura Gasteizko Aurreraren kontra egindako partiduez: "Lehenengo zatian egin dizkigute bi golak. Defentsan makal ibili gara, eta erasora nondik jo asmatu ezinka. Bigarren zatian, ostera, defentsan hobeto jardun dugu, baina erasoan ez dugu asmatu", adierazi zigun: "Gu ere aulkitik ez gara oso fin aritu, hortan, danok txarto".



Partidu ondorengo talde agurraren ostean zaleen 'berotasuna' eskertu zuten jokalariek. | X. URZELAI

LEHEN NAZIONAL MAILA

Iturripe 'izoztuan' MUK ondo eutsi zion partiduaren tenperaturari

Ligako bederatzigarren garaipena batu zuten

XABIER URZELAI | ARRASATE

Mondragon Unibertsitateak aurtengo helburu zorrotza lortzeko bidean –EBARA igo ahal izatea– beste aurrerapauso bat eman zuten zapatu ilunkeran. Eta dagoneko, bederatzigarren pausoa da, zuri-moreek bederatzit partidu irabazi dituztelako, eta bakarra

galdu. Padura ez zen inoiz Arrasatekoen parean egoteko gauza izan, baina azken laurdenean, Iturripen egiten zuen hotzagatik edo –kanpoan barruan baino epe-lago egiten zuen, etxeokak hoztu egin ziren une batez, eta kontrarioak tartea txikitzeko baliatu zuten hori. Baina, apur bat estu-

tzea nahikoa izan zen ostera ere arnasa hartzeko (94-81).

Saskiratzeak, erraz

"Kontrarioak defentsan erraztasun handiak ematen dituenean, sarri, mesederako baino kalterako izatean da". Josu Larreategi- ren adierazpenak dira, partidu

EMAITZA

MU

94-81

PADURA

ostean egindakoak, eta printzipioz kontraesana dirudi, baina kantxan ikusi ahal izan zen hori: "Saskiratzeak errazegi ikusten ditugunean batzuetan nahastu egiten gara, saskira bota beharrean soberan dagoen beste pase bat ematen dugu, esaterako, eta gaur halaxe ibili gara. Ondo ezagutzen dugun kontrarioa genuen aurrean, eta minutu txar batzuk izan ditugun arren, berriro estututa aurrera atera dugu partidua. Batzuetan, baina, gertatzen da apur bat erlaxatu ostean berriro ere partiduan sartu nahi izaten dugula, baina beti ez da lehengo intentsitatea lortzen".

Hamargarrenaren bila

Urtea bikain agurtzeko etxetik kanpora jokatu du MUK datoren astean, sailkapenean oso atzean dagoen Ardoiren kantxan: "Kuriosoa da, taldea ezagutzen dudalako eta saskibaloian jokatzeko dakitela uste dudalako. Baina, zorte txarraz-edo ibiliko dira, partiduak irabazi ezinka".

Arrasatekoendako, baina, ez da urteko azken partidua izango, Gabonetako gazte mailako torneooko egitarau barruan lagunarteko berezia jokatu dutelako. Hilaren 27an izango da.

SENIOR EMAKUMEZKOAK

Eskoriatzak 45-41 irabazi zion Oiarso taldeari etxean

Sailkapeneko aurrealdeko postuetan jarraitzeko borrokan Eskoriatzako neskek partidu parekatua jokatu zuten Oiarso-koen kontra. Garaipenari esker, baina, Bera Bera Gros eta Alde Zaharra taldeen ondo-ondoan jarraitzen dute, ligan agintzen.

MAILA AUTONOMIKOA

Iruren ginetik pasata, ligako bosgarren garaipena Aloña Mendik

Natra Aloña Mendik ligan aurrealdean jarraituko du –hirugarren postuan– Irungo taldeari 76-50 irabazi ostean. Astigarragako partidua gertatzen zaie urtea amaitzeko; Urdanetaren eta La Salleren atzetik doaz.

SENIOR BIGARREN MAILA

MUren eta Aloña Mendiren arteko derbia, Oñatikoendako

Nahiz eta sailkapenak kontrakoa erakutsi, Mondragon Unibertsitateko eta Oñatiko mutilek jokatuak derbian oñatiarrak gehiago izan ziren (64-72). Bestalde, Soralue BKEk ligako laugarren garaipena lortu zuen Internazionalen kontra (57-49).

Carrefour

GORBEIA



Abenduaren 13tik 16ra bakarrik!

-%30

jostailuetan*

Jostailuetan 50 €-tik gorako erosketak egitearren.

Deskontu hori zure hurrengo erosketan trukatu ahal izango duzu, 2013ko abenduaren 17tik 2014ko urtarrilaren 6ra.

*Hauk ez dira jostailutzat hartzen: bideojokoak, kontsolak eta bizikletak.

Jostailuak aldatu edo bueltatu ahal izango dituzu 2014ko urtarrilaren 12ra arte, erosketa-txartela eta produktuaren jatorrizko enbalajea aurkeztuta. Eskaintza honen barruan erositako produktuak bueltatzeko berekin dakar eskuratutako deskontua bueltatzeko betebeharra. Eskaintza ballagarria Carrefour Gorbeia hipermerkatuan bakarrik.

Abenduaren 16ra arte

3x2

5.000 produktu baino gehiago
3x2 promozioarekin

60 € baino gehiagoko erosketengatik Club Carrefour zure txartela aurkeztuz



Joan-Etorria

Autobideak:

Carrefour Gorbeia etortzeko AP-1 (Eibar -Etxabari Ibiña) eta AP-68 (Laudio-Altube) - Erosketa tiketa aurkeztuz + egun beraren bidesariko frogagiria.

Zenbatekoa opari-txarteletan ordainduko da.

AP 68 **Laudio - Amurrio - Urduña** AP 1

AP 1 **Arrasate - Aretxabaleta - Eskoriatza**

Doan

Autobideko bidesaria

carrefour.es

Abenduaren 31era arte

Iñigo Aranburu | Kirolaria

"Akrobaziak kirol honen gehigarriak dira; ezaugarri nagusia gorputza entrenatzea da"

- ▶ Gorputza eta giharrak modu alternatiboan lantzen dituzte, gimnasioa kalera eramanda
- ▶ "Ez da makinarik behar, ezta pesarik ere, barrak eta bakoitzaren pisua erabiltzen ditugu"

JOKIN MUJIKA | ARRASATE

Street Workout (kaleko entrenamendua). Hala ezagutzen da mundua zehar kirol mota hau. Euskal Herrian jende gutxi praktikatzan du, baina Arrasaten bada leku bat barretan ibiltzea gustatzen zaienentzat moldatua. Bertan entrenatzen da ia egunero Iñigo Aranburu (Arrasate, 1993) beste lagun batzuekin, eta gero eta jende gehiago joaten da bertara entrenatzera.

Zergatik hasi zineten barretan entrenatzen?

Egia esan, Youtuben bideoak ikusten hasi ginen. Ikusten genuen gimnasia joan barik sasoiari eusten ziola jendeak. Kirola praktikatzeko gogoarekin geunden, eta, halako batean, Arrasaten barrak zituen parke berri bat egin zutela konturatu ginen. Gainera, sorbalda lau aldiz hautsi nuen, eta indartzeko beharra neukan.

Nola definituko zenuke *Street Workout*-a?

Gorputzeko parte guztiak lantzean datza. Berez, gimnasia joanda ere egin daiteke hori, baina bada diferentzia handi bat. Kalean barretan entrenatzen, barrak eta norberaren pisua bakarrik erabiltzen dira giharrak indartzeko, ez da makinarik behar, ezta pesarik ere.

Baina gorputza eta giharrak lantzeaz gain, akrobaziatik ere xurgatzen du kirol honek, ez?

Bai, baina akrobaziak egiten has-teko lan handia egin behar da aurretik. Ia ezinezkoa da akrobaziak egitea hasieran. Denborekin eta egunerokotasunarekin indarra hartzen da, eta pisua hobeto kontrolatzen has daiteke. Horren ondoren has daiteke barretan trukuak egiten. Hala ere, akrobazien kontua kirol honen gehigarri bat da. Berezko ezaugarri nagusia gorputza entrenatzea da, hala definitzen du izenak, *Street Workout* delakoa (kaleko entrenamendua). Egia da lehiaketak egoten direla, eta hauek akrobazien ingurukoak izaten dira, baina argi daukat lehiaketetan parte hartzeko beharrezkoa dela entrenamendu ordu asko izatea.

Zeintzuk izan dira honetan hasteko eragin edo influentziak zuentzat?

Lehen aipatu dudan moduan, Youtuben ezagutu genuen kirol hau. Futboleko jokatzeko dutenentzako Bartzelona, Manchester United edo Milan izan daitezkeenak guretzat *Bar Brothers* (Barretako Anaiak) edota *Bar Stars*



Iñigo Aranburu, Arrasaten barrak dauden parkean. | JOKIN MUJIKA

(Barretako izarrak) izan daitezke. Haiek dira gure ereduak, mundu mailan onenetakoak dira, eta, gainera, bideoak igotzen dituzte sarera, egiten dutena erakutsita. Horrekin batera, praktikatzeko tutorial bezalakoak ere igotzen dituzte; giharretan indarra hartzen joateko ariketak nola egin erakusten dute bideoen bitartez, eta hasieran asko laguntzen du.

Arrasaten zuek izan zineten kirol hau praktikatzeko hasi zineten lehenengoak. Igartzen duzue hasieran baino jende gehiago hurbiltzen dela?

Bai. Gu ia egunero entrenatzen gara, eta, gutxika, igartzen da jende gehiago etortzen dela, batez ere, gu baino gaztetxoagoak. Azken

batean, honek asko pozten gaitu. Gainera, batzuekin entrenatzaila lanak egiten ditugula esan daiteke, hasten direnean.

Ze abantaila ikusten dizkiozu barretan entrenatzeari, eta ez gimnasia joateari?

Lehenik eta behin, abantaila ekonomiko garbia. Gimnasio pribatuak oso garestiak dira, eta denok dakigu ze garai pasatzen ari garen. Parke hau publikoa da, denona, ez da ordaindu behar eta gimnasioan lortzen diren besteko emaitzak edo hobeak lortzen ditugu. Gainera, parke batean entrenatzen da, eta gimnasio batean baino askoz ere askatasun handiagoa dago. Kalea irteten gara, eta lagunekin gauden bitartean barretara igo

eta entrenatzen, trukuak egiten... hasten gara. Egia da hainbat gimnasiotan entrenatzaileak daudela, eta eurek gidatzen dute, esaterako, lesiorik ez edukitzeko. Hala ere, nik argi eta garbi daukat ikusiz asko ikasten dela, eta guk beste batzuen bideoak ikusiz ikasten dugu. Azken batean, auto-diziplinatzen ikasten da. Barrutik irten behar da entrenatzeko nahi hori.

Noiztik praktikatzeko duzue *Street Workout*-a?

Orain dela urte bat hasi ginen joaten, gutxi gorabehera.

Hasieran, gogorra?

Bai. Ohitu arte gogorra egiten da. Oso ahul hasieran, baina azkar hartzen da gorputza barretara

igotzeko beharrezkoa den indarra. Guk uste baino arinago ohitu ginen ariketetara, nahiz eta kanpotik oso zaila ematen duen.

Esan daiteke *Street Workout*-ean zuen artean ez duzuela lehiatzen, ez?

Lehen esan bezala, badaude munduan zehar lehiaketak, baina ez da kontuan hartzen, esaterako, bata besteak baino gorputz gogorrago edo ederrago izatea. Lehiaketak akrobazien ingurukoak izaten dira, baina parte hartzen dutenen artean ez da haserterik egoten. Honen helburua kirol hau ezagutaraztea izaten da, normalean, eta akrobazien bidez adierazi nahi da ez dela gimnasioan bezala entrenatzera joan eta sasoiari egotea bakarrik, kirol honek ondo pasatzeko aukera ere ematen duela.

Gizartean modan dago gorputz estetika bat, hau da, definituta egotea. Hori ere lortu gura duzue kirol honen bidez?

Garbi daukagu estetikagatik ez dugula egiten. Noski, badago hori bilatzen duen jendea, baina gure helburua bakoitzaren buruarekin gustura sentitzea da, kirola egitea eta sasoiari eustea. Niri, adibidez, asko gustatzen zait kirola egitea, egin osteko sentazio horrek asko betetzen nau, eta kirol honekin lortzen dut hori. Gorputz gihartsua edukitzeagatik etortzen direnak ez dira inoiz konformatzen. Beti itxura hori hobetzea daukate helburu, eta horrekin obsesionatzea arriskutsua izan daiteke, nire ustetan.

Zergatik animatuko zenuke jendea kirol hau praktikatzera?

Batetik, gimnasio pribatu bat ordaintzeko dirurik ez dutenak etortzera gonbidatuko nituzke, debalde praktikatzeko dugulako. Kirola egiteko gogo daukatenak baino kirol proposa aurkitzen ez dutenak ere animatuko nituzke, probatzera, behintzat.

Arrasaten *Street Workout*-a praktikatzeko erabiltzen den parkea. | JOKIN MUJIKA

"Youtubeko bideoak ikusten ikasten ditugu askotariko ariketak"

"Urtebete daramagu joaten; asko aurreratu dugu"

"Gimnasio pribatuak oso garestiak dira, parke hau publikoa da"

"Praktikatzeko kirol bat aurkitzen ez dutenak probatzera animatuko nituzke"

Gabonetako oporrak balia ditzakegu umeekin azokara joateko

Amaia Diaz de Monasterioguren nutrizionistak hainbat pista eman ditu

LARRAITZ ZEBERIO | ARRASATE

Amaia Diaz de Monasterioguren nutrizionista oñatiarra hainbat tailer egiten ari da, sukaldean umeak ere protagonista izan daitezzen. Uste du Gabonak aukera polita direla umeak elikadura osasuntsuan hezteko: "Gure sukaldean, gure erosketetan tartea egin behar diegu", adierazi du. "Gurekin eraman behar ditugu azokara erosketak egitera. Hala, kontaktuan jarriko ditugu garaiko produktuekin, gure baserriarrek... eta animatuko ditugu barazki gehiago jatera". Gabonetan egin ohi ditugun gehiegikerien aurrean nola jokatu ere adierazi du nutrizionistak. "Komeni da antolatzen

hastea, eta egunotan egingo ditugun gehiegikeriak konpentsatzeko zenbait neurri hartzea".

Gabonetan elikadura orekatua

Dietistak proposatzen du Santa Luzia egunetik —abendua 13— familiaren eguneroko dietan zenbait plater arin sartzea. Esaterako, barazki kremak, kipula edo berakatz saldak, konpotak... Diaz de Monasterioguren ustez, saihestu egin behar dira debekuak, baina uste du orekari eusteko komenagarria dela Gabonetan ohikoak diren otordu pisutsuen edo koipetsuen ostean dieta arinagoak egitea. "Gabonak urtean behin dira. Elkartzen gara etxean

eta ordu asko ematen ditugu mahaiaren bueltan. Ondo pasatu behar dugu, baina komeni da gure osasuna zaintzea", dio.

Hala, zenbait aholku eman ditu umeendako ere oso egokiak direnak. Arraina, esaterako, afaritarako lehenesten du, eta okela bazkaritarako. Egun berezi horietan eguneroko bost jatorduak ondo markatzeko gomendatzen du: "Gehiegikeria horretara goseak ez joateko", eta mahaian eseri aurretik bizpahiru piña zati jateko aholkatzen du: "Digestioa martxan jartzeko". Postreetan, berriz, kiwi, piña edo mandarina aleak ere sartzeko aholkatzen du dena gozokia izan ez dadin.



Bi ume, iaz, Arrasateko baserriarrek egindako azoka batean. | GOIENA

Estitxu Fernandez | Sexologoa

"Emakume bakoitzak daki inork baino hobeto zer den berarentzako seguruen"

Erditze kontzientearen aldeko apustua egiten du lesakarrak 'Gure erditzearen jabe' liburu berrian

LARRAITZ ZEBERIO | ARRASATE

Durangoko Azokan aurkitu genuen Estitxu Fernandez liburu aurkeztu.

Zer da Gure erditzearen jabe?

Duela zazpi urte hasi nintzen idazten, eta urteotan eboluzio nabarmena izan du proiektuak. Bukatu du izaten erditze kon-

tzientearen aldeko liburu bat. Maiz aditzen dugu *erditze medikalizatua* edo *erditze naturala*, eta horiek egongo lirakeke bakoitz mutur batean. Egia da haurdunaldi eta erditze normal batean —dena ondo doanean— erditze fisiologikoa dela seguruen; hori da ebidentzia zientifikoak esaten

duena. Baina uste dut emakume bakoitzak dakiela inork baino hobeto zer den seguruen berarentzako, eta, orduan, bi mutur horiek bere beharrei erantzuten ez baldin badiete, alferrik dira. **Ze mezu helarazten du liburuak?** Liburu honetan egiten dugun apustua da emakume bakoitzak koka dezala bere burua bi mutur horien barruan, nonbait. Erditze natural baten aukera egiten badu, primeran. Baina, agian, bere beldurrengatik edo bere errealtatearengatik ez du bat egiten horrekin. Horrelakoetan garrantzitsuena da kontziente izatea erditu nahi den moduz. Liburuak horren alde egiten du.

Nola egituratu duzu lana?

Testigantzak dira liburuaren oinarria. Erditu diren emakumeak elkarrizketatu ditut, ginekologoak, emaginak, terapeutaren bat ere badago, eta gero biltzen dut erditze fisiologikoaren inguruko ebidentzia zientifikoak. Dokumentazio lana ere badago, beraz.

Gaiak interesa pizten duela sumatu duzu?

Nik neuk liburu aunitz irakurri ditut gai honen inguruan, eta irakurri behar izan ditut gaztelaniaz, euskaraz bakar bat ere ez dagoelako. Amatasunaren inguruan ere gutxi daude: nik dakidala, bi. Eta justu erditzearen inguruan eta kontzientzia jartzearen inguruan bakar bat ere ez dago. Bai, gaiak gero eta interes handiagoa pizten du.

"Garrantzitsuena da erditu nahi den moduz kontziente izatea"



Estitxu Fernandez. | XUMAR ALTZUGARAI

Eskaera handiko haurrak: gainerakoek baino arreta handiagoa eskatzen dute

Adituek aholkatzen dute aurrez eginda dauden eskemak ahazteko eta konparazioak saihesteko

L.Z. | ARRASATE


William Sears pediatra estatu-batuarrarena da *haurtxo eskatzailea* terminoa. Guraso gutxiak entzun izan dituzte *eskatzailea* edo *eskari handia* terminoak. Gisa horretako haurren jokatzeaz hizketan hasita, ohikoa da *nekarria* edo *zaila* gisako terminoak erabiltzea. Baina zer da eskari handiko haurra?

Negar asko, lo gutxi

Asko behar duten haurrak izaten dira: xurgatzaileak, bularra maizago hartzen dutenak, maiz esnatzen direnak, kontentagaitzak, iragarri ezinak, hipersentiberak eta kontaktu fisiko handia behar dutenak. Zenbai-

tetan, haurtxo zailak dituzten gurasoek senti dezakete familiakoek eta lagunek ez dituztela ulertzen, eta, gainera, errudun egiten dituztela haurren jokabideagatik.

Adituen esanetan, horrelako haur bat daukanak soilik uler dezake gurasoen jokabidea. Hori dela eta, gauzak lasai hartzea komeni da, nork bere burua errudun ez egitea eta onartzea haur horren izaerak gehiago eskatzera daramala eta sentiberago egiten duela estimuluen aurrean. Zaila da hainbeste eskatzen duen haurren beharrik asetzea. Horregatik, adituek gomendatzen dute haurra zaintzeaz gain norbera ere zaintzeko, eta eskemak ahazteko.



Haurra negarrez. | BLANCA LANASPA



4. edizioa Kantari

OÑATI 2013-12-14

Urduritasunak alboan utzi, makina bat aldiz entseatutako koreografiak gogoan hartu eta 22 taldetan banatuta, 89 neskatila-mutiko igo ziren zapatuan Oñatiko Gaztelekuko agertokira 'Kantari'-n parte hartzeko. Oñatiarrak ere fin ibili ziren dantzan eta abesten! ARGAZKIAK: IMANOL SORIANO



Oñatin grabatutako saioak urtarrilaren 7tik 16ra emituko ditu Goiena telebistak martitzen eta eguenetan 19:30ean; biharamunetan, errepikapena 13:00ean; zapatuan, 12:30 eta 19:00ean asteko bi saioak batera; eta domekan, 12:30 eta 19:00ean ere bi saioak batera.



Kantari hurrengo saioak urtarrilaren 18an grabatuko dira, Arrasateko Amaia antzokian, 14:30ean.



Beste saioetako argazkiak ikusteko eta Kantari-ri buruzko informazioa jasotzeko: blogak.goiena.net/kantari



Saio honetako argazki guztiak ikusteko: <http://goiena.net/oinati/1387100628896> EDO erabili aldamenko qr kodea.





Goiena Klubeko abenduko zozketak

Goiena Klubeko bazkideok irabaz ditzakezuen sariak hauek dira. Hartu parte!



Arrasateko hipermerkatua



Play Station 3a

Arrasateko Eroski hipermerkatuak emandako Play Station 3a

Parte hartzeko sariaren izena: Play Station



Otarrak
DEBAGOIENEN BASERRI SAREARI esker baserriko produktuez osaturiko 4 otar zozketatuko ditugu

Parte hartzeko sariaren izena: Baserrisarea



ARRIKRUTZ
oñatiko kobak

Sarrerak
Arrikutz kobak bisitatzeko, 6 sarrera zozketatuko ditugu. Parte hartzeko sariaren izena: Arrikutz



2 liburu sorta
Txorakeriak, Ertzeko zatiak eta Erlea gure sendagile liburuak.

Parte hartzeko sariaren izena: Liburuak



www.harremandenda.org
Bidezko Merkataritzako produktuak

Otarrak
HARREMAN DENDARI esker bidezko merkataritzako produktuez osaturiko 2 otar. Parte hartzeko sariaren izena: Harreman

PARTE HARTZEKO:

SMS: KLUBA [Sariaren izena] [bazkidearen zenbakia] 215800 zenbakira

Telefonoz: 943 25 05 05

E-postaz: kluba@goiena.com

WhatsApp: KLUBA [Sariaren izena] [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.

Parte-hartzaileen artean egingo da zozketa.

Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Taldearen fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestionatzea. Eskubidea izango duzu datuotan sartzeko, haiek zuzentzeko edo ezetzatzeko, helbide honetara idatzita: kluba@goiena.com



goienakluba
Euskara irabazle, denok irabazle!



Gabrielen Lekua ikuskizunaren une bat. | IMANOL SORIANO

KRONIKA

Arestiren bizipenak gaurkotzen

ANDER LARRAÑAGA | ELGETA

Gabriel Arestiren lana batzen duen ikuskizuna taularatu zen egubakoitzean, Espaloian. Gabriel Aresti Kultur Elkartea eta Zenbat Gara elkarteak izan dira idazle eta poeta zenaren ikuskizuna antolatzearen arduradunak. *Gabrielen Lekua* izeneko emanaldian, Andoni Egaña, Oier Guillan,

Alain Urrutia eta Rafa Rueda bezalako artistek eurek ondoen egiten dakitena erakutsi zuten: bertsolaritza, antzerkia, musika eta deklamazioa diziplinak nahastutako antzezlan izan zen.

Diziplina hauek guztiak nahastuta, Arestiren obra gaurkotu zuten eta aldi berean, gaurko kulturarenganako kritika egin

zen. Hala zioen Andoni Egañak bere bertso batean: "Gutxi gara ikuskizunean. Gizartean artalde bihurtu gara eta gu (ikuskizunean zeudenak) ardi beltzak gara. Jarraitu ardi beltz izaten".

Lan eta lantalde bitxia

Esan bezala, antzezlan berritzailea da lantaldearena, diziplina

FITXA

IKUSKIZUNA

GABRIEL LARRAÑAGA, ANDONI EGAÑA, RAFA RUEDA, OIER GUILLAN ETA ALAIN URRUTIA

Estiloa: Diziplina nahasketa.

Non: Espaloia Antzokia.

Eguna: Egubakoitzea, abenduak 13.

Iraupena: 85 minutu.

ko elkarlan berezietan ibiltzera. Hasiara batean lau sortzaile bildu ginen jakin barik non bukatuko genuen eta apurka-apurka joan da gauzatzen espektakulua. Zazpi hilabeteko lan batzarrak eta hausnartze prozesuaren ondorioa da hemen gaur taularatu duguna".

Sentimentuak transmititzen dituen emanaldia da egileen hitzetan, hain justu, publikoarekiko hartu-eman gauzatzen delako. Helburu emozional honetaz gain, Arestiren abestiak gaur egun gurera ekartzea ere izan da eronketako bat egileendako.

desberdinak uztartzean. Hala diosku Rafa Rueda musikariak: "Esperientzia bitxia izan da guretzat ez geundelako ohituta hala-

Bizitzaz, heriotzaz eta sexuaz eginiko gogoeta, umore klabean

Z.V.D.M. | BERGARA

Estreinaldia hasi aurreko minutuetako urduritasunak –asko izan ez arren– agertoki atzealdean utzita irten zen Pauxa pailazoa –Virginia Imaz– bere herrikideen aurrera egubakoitz iluntzean.

Modu horretan Zabalotegi aretoa bere egin zuen Imazek, Shakespeare handiaren *Hamlet* obrako esaldi famatuan oinarrituta, *Sex o no sex* lanari bizitza emanez.

Pozik estreinaldiaz

"Lagunen aurrean-eta aurrestreinaldiak egin nituen, obra nahiko landuta eraman nuen Zabalotegira. Gustura asko ari-

tu nintzen, eta ohartu nintzen, gainera, oraindik ere badaukagula sexuari buruz berba egiteko gogo. Albiste bikaina da". Eta gainera, Zabalotegira bertaratutakoen irribarreak ere erakutsi zuten aktoreak ez ezik, ikus-entzuleek ere gozatu zutela emanaldiarekin.

Oihulari Klown taldearen azken lanak lotsa barik egiten du berba bizitzaz, heriotzaz, sexuaz zein menopausiaz. Den dena taldearen ikur garrantzitsua den umorea baliatuz. Eta gainera, Pauxaren naturaltasunaren bidez publikoaren konplizitatea lortzea erdietsi zuten egubakoitz iluntzeko emanaldian.



Virginia Imaz Pauxa pailazoaren paperean. | IMANOL SORIANO

Komunikatzea lortu zuen Kukai eta Tanttaka taldeen azken lanak zapatuan Arrasaten

Mireia Gabilondok zuzendu du 'Komunikazioa-Inkomunikazioa' lana

Z.V.D.M. | ARRASATE

Lehenengo minututik ikus-entzulea sarean harrapatzen duen ikuskizun horietarikoa da *Komunikazioa-Inkomunikazioa*, eta halaxe gertatu zitzaizen zapatuan arratsaldean ere Arrasateko Amaia antzokira bertaratutakoei. Izan ere, askotariko estiloak nahasten ditu bere baitan Kukairen azken lanak: koreografia originalak, zuzeneko musika, ikus-entzunezkoa...

Haria galdu gabe

"Zuzeneko musika, euskal dantza eta garaikidea, euskal kutsuko buleriak eta tangoak, eta baita ikus-entzunezkoa ere. Eta nahiz eta gauza ugari eskaini, ikusleak ez du haria galtzen, une aproposan sartzen baitira guztiak". Hala eman zuen aditzera dantzarekin harreman estua duen Maite Albes arrasatearrak emanaldiaren amaieran. Bestalde, protagonistek jantzitako arropak ere Albesen arreta bereganatu zuten: "Oso arruntak izan arren, jakin dute detaileekin, koloreekin jolasten eta zuku guztia ateratzen".

Eta guzti hori baliogarria izan zen agertokiko pertsonen zein taldeen arteko harremanak konartzeko.



Emanaldian zehar dantza ezberdinak ikusi ziren. | IMANOL SORIANO

Laboaren bidetik

Mikel Laboak maiz egin zuen berba komunikazioaren eta inkomunikazioaren arteko dikotomiaz, hitz ezberdinak baliatuz. Eta modu berezian presente egon zen Laboa,

berak irekitako bide horri jarraitutako saioa eskaini baitzuten Kukaik eta Tanttakak. Berben garrantzia ere ikusi zen hala Amaian; hizkuntza ezberdinetako berbak baliatuz, komunikatzeko.

Ikerketa batek dio munduko trafikoaren %61 ez dela gizakiena

'Bot' kalte-eragileak geroz eta gehiago eta, gainera, sofistikatuagoak direla dio Incapsulak

JON BEREZIBAR | ARRASATE

Incapsula erakundeak egindako ikerketak dio Interneteko web trafikoaren %61,5 automategi egindakoa dela eta %38,5 soilik dela gizakiena. Horretarako, 90 egunetan bot delakoek eginiko 1.450 milioi bisitaren jarraipena

egin dute. 20.000 webgune aztertu dituzte 249 herrialdeetan.

Aurtengoarekin, bi dira gaitu honi egin dizkioten jarraipenak. Hala, 2012an %51a zen bot-en trafiko eta urte bateko epean, hazkunde oso nabarmena izan da. Orotara, trafiko automatikoa

deritzona %21 hazi da urtebetean soilik.

Onak eta txarrak

Ikerketaren arabera, bi dira hazkunde hau esplikatzen diren arrazoiak: "Zerbitzuen Internet" delakoaren zabalkundea (Internet presente dago ordenagailuez aparte, beste leku askotan) eta bot-en euren jardueraren igoera ere badago. Gainera bot guztiak ez dira kaltegarriak, horietatik batzuk bilatzaileek eurek erabiltzen dituzte jarduerara hobetzeko.

Bot kalte-eragileen artean, ordea, geroago eta mota gehiagokoak daude nortasun ebasleak direnak, webguneen segurtasun neurriei izkin egiten dietenak, hain justu. Ikerketarekin ere berretsi ahal izan dute bot horiek garatzen dituzten programatzaileek geroago eta teknika sofistikatuagoak erabiltzen dituztela.

Alderanzkarriak eta txikiak izango dira USB berriak

Estandar bakarrera jotzea da helburua

J.B. | ARRASATE

USBaren sustapen taldeak 3.0 USBaren ezaugarriak eman ditu jakitera: txikiagoak izango dira eta alderanzkarriak. Ezaugarrien zerrenda guztia erabat finkatzeaz datorren urte erdialdera arte arduratuko dira.

Konektore berria Type-C delakoa izango da eta Apple-en Lightning eta geroago eta erabiliagoak dira microUSBen antzerako neurria izango dute. Apple-en konektorea bezala, USB 3.0 delakoa alderanzkarria da. Horrek esan gura du alde batera zein bestera konektatu


eta informazioa trukatzeko gauza izango direla USB berriak datorren urtean.

Belaunaldi berria

Jakinazpenez prentsa-ohar ofizial baten bitartez egin dute eta esaten dutenez, konektore berria gailu estra-finen belaunaldi berri eta zabal baterako dago diseinatua, tabletetatik hasi eta ordenagailu eraman-garrietaraino. Belaunaldi berriarekin, halaber, konpatibilitate arazoekin amaitu gura dute eta sektorean estandar bakarra egon dadila.

Praka musikalak, eskuez jotzeko

Nork ez du abesti baten erritmoa jarraitu, bateria delakoan, izterretan txaloak jota? Garatzaile gazte batzuen ideia da frakak eurak bihurtzea instrumentu. Oihalezko xafra sentikor batzuk diseinatu dituzte eta horiek ukitzean app baten bitartez nahi den musika tresnaren soinua ateratzen da bozgorailuetatik. Belkro bidez itsats daitezke xaflok edozein praktara. Proiektua Kickstarter-en dago, finantziario zain, DrumPants izenarekin.



ARGAZKILARIA XXX



Haririk gabeko biltegi erabat eramangarria

Wi-Fi bitartez ere konekta daitezkeen USB pen-drive-a da SanDisk Connect Wireless. Edozein sistemarekin da bateragarria eta biltegiratzeko gaitasun handiaz gain, ezelako haririk gabe, edozein eduki gordetzeko balio du, baita ere musika eta ikus-entzunezkoen streaming gailu eramangarri moduan.

Amazone-ek dron bidez banatuko duela baieztatu du DHL enpresak

Bi konpainiek oraindik ikerketa fasean daudela esan dute, erregulazio espezifikoaren faltan

J.B. | ARRASATE

Deutsche Post DHL posta banatzaile alemaniarrak dron bidezko fardel banaketa arrakastarekin frogatu duela jakinarazi du. Bonn hiriko farmazia baten egin dituzte probak, sendagaiak banatzeko. Hala, aurreko astean Jeff Bezos Amazon-eko buruak egindako adierazpenekin, bi enpresa hasiko dira bere kabuz gidatutako robot hegalarrien bitartez lehen banaketak egingen.

Ikerketa fasean oraindik

Dropeen erabilera oraintsu arte arlo militarera besterik ez da mugatu baina ematen du bizitza zibilean ere erabilpen zabal izango dutela, behin arra-

kasta frogatu denean. Amazon jada hasi da frogekin eta antzerako asmoak iragarri ditu Alemaniako DHL-ek ere. Halere, Alemaniako enpresak ez du esan banaketa modu erregularraren artean sartuko duen dropeen erabilera. Ez Europan eta ezta Ameriketako Estatu Batuetan ere, inolako erregulaziorik ez dago eta hutsune legal hori medio, litekeena da oraindik luze jotzea. Industria, baina, besoak gurutzatuta ez da geratu eta fabrikatzaileak hasi dira flota berriak iragartzen. Txinan interes berezia dute herrialde eskualde zailenetara iristeko. Deutsche Post-etik adierazi dute, oraindik-orain, ikerketa fasean daudela bete-betean.

TELE-BEGI

IMANOL GALLEGO



Aitonduegin naiz!

Familia guztien egongelan *Larousse* bat egon ohi da. Nire kasuan bi entziklopedia ditugu: liburua eta aitaita. Hau edozein gertakariren inguruko hamai-ka datu eta pasadizo bizitakoa da, eta ni ere antzera hasi naiz. Lehengusu txikiei kontatu diet aurtengo Montserrat Caballe-ren munstro aurpegia behar-rean garai batean Famosa panpinak, Edu eta bere telefonoa... izaten genituela gure telebistetan. Aurten Freixenetek ere low cost iragarki batekin agurtuko du urtea.

Badakit nostalgia oso anker-rra dela, baina 20 urte baino gehiago ditugunok ziur aurtengoa baino telebista-Gabon animatuagoak ezagutu ditugula. Diruaz gain, krisia irudimenera iritsi al da? Berrehun panpina dantzan jarri edo 8 urteko mutikotxo bati mugikor bat emateko ez da aurrekontu askorik behar. Hala ere, urtero moduan, edozein tontakariarekin erostera bultzatzen gaituzte iragarleek.

Nik dagoeneko, kuadrilla-koekin batera, erosi dut aurtengo Gabonetako loteria. Ea aurtengoan nire tripa loditzeaz gain, patrika ere loditzen den!

P.D: Noiz egingo ote du Goienak Gabonetako iragarki propio bat?

ASTEA GOIENAN

GOIENA TELEBISTA

ASTELEHENA 16



'Berriak'

Egunean zehar Debagoienean gertatzen diren albiste nagusien errepasoa egingo dugu albistegietan. | 14:45

12:00 Zine eta bideo bilera
13:15 Erreportajea
13:30 Ikusmira: Buztinarte erakusketa
13:45 Ekogune
14:14 Onein: Nahaskia
14:45 Berriak
15:15 Eguraldia
15:18 Zorion agurrak
15:23 Ur eta lur
16:01 Onein: Berenjena beteak
16:31 Berriak
17:01 Eguraldia
17:04 Zorion agurrak
17:09 Bideo klipak
17:45 Klaketa
18:25 Ekogune
18:55 Zorion agurrak
19:02 Berriak
19:27 Eguraldia
19:30 Ekogune
20:05 Zorion agurrak
20:12 Harreman, 20 urte
21:24 Berriak
21:49 Eguraldia
21:54 Zine eta bideo bilera
23:09 Berriak
23:34 Eguraldia
23:37 Gurean Gaur.

MARTITZENA 17



'Kantari'

Karaoke ikuskizunean parte hartu zuten Elgetako eta Bergarako neska-mutikoen saioak ikusgai. | 19:33

12:00 Harreman, 20 urte
13:15 Aizank!
14:00 Aniztasunean bizi
14:23 Ikusmira: Zine eta bideo bilera
14:38 Zorion agurrak
14:45 Berriak
15:10 Eguraldia
15:13 Ikusi irratia: Samba Dzanga
15:55 Onein: Pudina
16:15 Zorion agurrak
16:22 Berriak
16:42 Eguraldia
16:45 Zorion agurrak
16:50 Klaketa
17:33 AsteON
18:18 Tronpeta eta organo kontzertua
18:55 Zorion agurrak
19:00 Berriak
19:25 Eguraldia
19:28 Zorion agurrak
19:33 Kantari
20:03 Zorion agurrak
20:11 Zine eta bideo bilera
21:26 Berriak
21:51 Eguraldia
21:54 Aizank!
22:39 Berriak
23:04 Eguraldia
23:07 Ilusio gaua
00:19 Gurean Gaur.

EGUAZTENA 18



'Onein'

Sukaldaritza saio horretan, sasoiko produktuak eta poste goxoak egiten erakutsiko digute. | 12:37

12:00 Tronpeta eta organo kontzertua
12:37 Onein: Berenjena beteak
13:07 Kantari
13:37 Aniztasunean bizi
13:57 Bideo klipak
14:12 Ekogune
14:42 Zorion agurrak
14:45 Berriak
15:10 Eguraldia
15:13 Aizank!
15:58 Ikusmira: Zine eta bideo bilera
16:11 Ikusmira: Buztinarte erakusketa
16:26 Zorion agurrak
16:31 Berriak
16:56 Eguraldia
16:59 Atik Zra: Herritarren segurtasun legea
17:51 Ur eta lur
18:29 AsteON
19:00 Berriak
19:20 Eguraldia
19:23 Bideo klipak
19:40 Zine eta bideo bilera
20:55 Berriak
21:20 Eguraldia
21:22 Ekogune
21:52 Ikusi irratia: Samba Dzanga
22:37 Berriak
23:22 Eguraldia
23:52 Gurean Gaur.

EGUENA 19




'Kantari'

Gaurko programan, Antzuola neska-mutikoen grabatutako saioak emitituko dituzte. | 20:03

12:00 Ikusi irratia: Samba Dzanga
12:43 Onein: Pudina
13:03 Ikusi irratia: Samba Dzanga
13:44 Bideo klipak
14:09 Ekogune
14:39 Zorion agurrak
14:45 Berriak
15:10 Eguraldia
15:13 AsteON
15:53 Bideo klipak
16:05 Ikusmira: Buztinarte erakusketa
16:20 Zorion agurrak
16:30 Berriak
16:55 Eguraldia
16:58 Ikusmira: Zine eta bideo bilera
17:11 Aniztasunean bizi
17:31 Ekogune
18:06 Tronpeta eta organo kontzertua
18:51 Zorion agurrak
19:00 Berriak
19:20 Eguraldia
19:23 AsteON
20:03 Kantari
20:31 Berriak
20:56 Eguraldia
20:59 Harreman, 20 urte
22:14 Berriak
22:44 Eguraldia
22:47 Ilusio gaua
00:02 Gurean Gaur.

EGUBAKOITZA 20



'Ekogune'

Julen Iriondok grabatutako *Ekogune* saio-ko atalak ikusteko aukera izango dugu gaur. | 16:58

12:00 Ikusten: Dantzari Eguna.
13:05 Onein: Berenjena beteak
13:35 Kantari
14:00 Ikusi irratia: Samba Dzanga
14:45 Berriak
15:10 Eguraldia
15:13 Ikusi irratia: Samba Dzanga
15:54 Zorion agurrak
16:04 Bideo klipak
16:30 Berriak
16:55 Eguraldia
16:58 Ekogune
17:28 Bideo klipak
17:39 Aniztasunean bizi
17:59 Klaketa
18:39 Zine eta bideo bilera
18:52 Zorion agurrak
19:00 Berriak
19:30 Eguraldia
19:35 Bideo klipak
19:45 Klaketa
20:25 Zine eta bideo bilera
21:40 Zorion agurrak
21:45 Berriak
21:45 Eguraldia
22:13 Harreman, 20 urte
23:28 Berriak
23:53 Eguraldia
23:56 AsteOn

ARRASATE IRRATIA

Bertso txapelketako finalari buruzko errepasoa egingo dugu

Atzo Barakaldoko BECen jokatu zen Euskal Herriko bertsolari txapelketari buruz egingo dugu berba gaurko *Igo autobusera* saioan. Han gertatutakoa, abestutako bertso onenen errepasoa eta BECen egondako giroaren nondik norakoak landuko ditugu betso aditu batekin.

Santamasetako azokaren berrikuntzak Arrasate Irratian

Urtero moduan, domekan, abenduaren 22an, ospatuko da Santamasetako azoka. Santamasetako Komisiñuek gogor dihardu lanean azken asteotan. Komisiñoko kide bat igoko da gure autobusera, aurtengo berrikuntzen berri ematera. Besteak beste, bi txerri zozketatuko dituzte.

Gospel emanaldirako sarrerak zozketatuko ditugu gurean

Georgia Mass Choir gospel taldeak kontzertua egingo du abenduaren 23an Amaia antzokian. Bada, musika beltza zuzenean entzun gura dutenen artean bi sarrera zozketatuko ditugu egunean. Bidali zuen eskaera 943 25 05 telefono-ra deituta edo irratia@goiena.com helbidera idatzita.

TELE-ALBISTEAK

'Goiena.net' berrituaren aurkezpen ekitaldia telebistan ikusgai

Kulturaten egindako ekitaldia oso-osorik emango dugu egubakoitzean, 20:25ean



Aurkezpeneko une batean, Miren Arregi azalpenak ematen. | JOSETXO ARANTZABAL

MIREIA BIKUÑA | ARRASATE

2013ko abenduaren 2an bete zituen hamar urte *Goiena.net* atariak. Bada, urteurren borobil hori aprobetxatu, eta goitik behera berri dugu Interneteko ataria. Webgune osatuagoa izango da aurrerantzean *Goiena.net: Aurreztu.com*-ekin, Debagoieneko Gida erabat berrituarekin eta *Komunitatea*-rekin, Debagoieneko bilgune birtuala izan gura duena.

Goiena.net atariak duen jantzi berria aurkeztu genuen abenduaren 12an. Goiena Komunikazio Taldeko zuzendari nagusi Iban Arantzabalek, Goienako edukien zuzendari Eneko Azkarratek, *Goiena.net*-eko *Komunitatea*-ren arduradun Miren Arregik eta webguneko editore Goiatz Aranek azaldu zituzten proiektu berriak, erakundeetako ordezkarien aurrean; besteak beste, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Politikarako sailburuorde Patxi Baztarrika eta Arrasateko alkate Inazio Azkarragarizar.

Ekitaldia oso-osorik emango dugu egubakoitzean, 20:25ean.

Hainbat aldaketa programazioan, platoan egin beharreko lanengatik

'AsteOn', 'Planik Bai', 'Magazinea' eta 'Harmailatik' ez dituzte egingo gaurtik

M.B. | ARRASATE

Goiena telebistako programazioak hainbat aldaketa izango ditu gaurtik. *AsteOn*, *Planik Bai*, *Magazinea*, *Asmatu baitetz* eta *Harmailatik* saioak ezingo dituzte egin asteen. Izan ere, telebistako platoan hainbat berrikuntza lan egin behar dituzte. Gaur, astelehena, hasiko dira platoa husten, eta lanak eguaztenean hasiko dituzte.

Hori horrela, asteen *Berriak* bakarrik ekoiztuko dute. Egune-ko albistegian ez da inolako aldaketarik egingo. Monika Belastegik aurkeztutako albistegia betiko orduan emitituko dute.

Hortaz, aurretik aipatu ditugun saio horiek ez dituzte emango urtarrilera arte.

Egubakoitzeko albistegia

Aste honetan Goiena telebistako programazioak izango duen beste aldaketa bat egubakoitzean izango da. Ohiko programazioa egingo da (ikus goiko taula), baina informatiboa aurkezle barik egingo dute. Goienako langileek ikastaro bat egin behar dute egun horretan. Hori horrela, albistegia egon egongo da, baina beste formatu batekin egingo dute: hain justu ere, aurkezle barik.

ZORION AGURRAK



ESKORIATZA
Mikel Cabeza Jorge
Abenduaren 22an, 9 urte. Zorionak familiaren partetik eta muxu handi bat!



ARRASATE
Ametz Zulueta Algorta
Abenduaren 22an, 5 urte. Geure Anbotoko sorginari, moso handi bat eta zorionak!



BERGARA
Markel Arrieta Gorosabel
Abenduaren 20an, 7 urte. Zorionak, Markel-txu! Ondo-ondo pasatu zure urtebetetze inguruko ospakizunetan eta kontuz... papa delta! Etxeko guztien, baina bereziki Jonen partetik.



ARRASATE
Ainhoa Anzorregi Jauregi
Abenduaren 19an, 9 urte. Zorionak, poxpolin! Ondo-ondo pasatu eta segi primeran kantatzen, "martxosita"! Muxukote handi bat etxekoen partetik.



ARETXABALETA
Irati Garai Leturiaga
Abenduaren 18an, 10 urte. Zorionak, txiki! Muxu eta besarkada handi bat opa dizugu familia guztiak, bereziki Haritzek. Ea merendola goxo bat prestatzen duzun!



ELGETA
Jon Irizar Martin
Abenduaren 18an, 9 urte. Zorionak, Jon! 9 urte bete dituzu eta gure txapelduna zara. Asko maite zaitugu! Ondo-ondo pasatu eguna.



BERGARA
Maria Martinez Loiti
Abenduaren 16an, 11 urte. Zorionak gure "señoritari"! Ai ama, 11 urte! Domekan ondo ospatuko dugu. Zurea eta aitaxorena, ezta? Ondo pasatu eta muxu potoloa.



BERGARA
Iñaki Martinez
Abenduaren 14an, 49 urte. Zorionak! Aurten berrogeita danak, eh? Ea txikitako bizikleta aldatzen dugun! Eta ez ahaztu "kaskoa". Denon partetik muxu handi bat.



ANTZUOLA
Eneritz Zubikarai Aguado
Abenduaren 12an, 2 urte. Zorionak aitaren, amaren eta familia guztiaren partetik.



OÑATI
Peru Orueta
Abenduaren 11n, 2 urte. Zorionak, potxolo! Oso ondo pasatu zure egunian eta fuerte-fuerte ein putz bi kandelairi! Muxu bat etxeko danan partetik!



ARETXABALETA
Danel eta Oxel Zubillaga Olabe
Abenduaren 10ean, 5 urte. Zorionak, bikote! Ondo pasatu eguna, etxeko guztien partetik!




ESKORIATZA
Jabi Baena
Abenduaren 10ean, 29 urte. Zorionak, aitaxo! Ondo-ondo pasatu eguna eta patxo potolo bat zuretzat.



ARETXABALETA
Zuriñe Larrinaga
Abenduaren 12an, urtebetetzea. Zorionak, amatxo! Ze zaharra zaren ja, e? Kar, kar, kar! Patxo handi bana Zaraitzuren eta Amaiuren partetik. A! Aitaxok beste bat bialtzen dotzu. Ondo pasatu!



ESKORIATZA
Ametz Belategi.
Abenduaren 18an, 4 urte. Zorionak, txapeldun! Konturatu orduko lau urtebete dituzu. Ondo pasatu zure eguna eta ospatzeko merienda goxo bat prestatuko dugu Leixarapen. Patxo potolo bat etxeko danon partetik!



BERGARA
Beñat Arin eta Patri Etxabe
Beñatek abenduaren 16an eta Patrik 22an. Zorionak, bikote! Muxu handi bat etxekoen partetik. Ondo pasatu zeuen urtebetetzean.




ARRASATE
Naroa eta Markel Urrutia Zubia
Zorionak, bikote! Naroak abenduaren 18an, 6 urte eta Markelek abenduaren 27an, 3 urte. Oso ondo pasatu zuen eguna eta muxu handi bat familia guztiaren partetik



ARRASATE
Jon Andoni Barrena.
Abenduaren 18an, 38 urte. Zorionak, tio Jon! Beste urte bat gehiago. Bazkari eder batera gonbidatuko gaituzu, ezta? Ondo pasatu zure eguna eta muxu pila-pila Ekaitzen eta Iratiren partetik..



ARRASATE
Irati Gutierrez
Abenduaren 18an, 15 urte. Etxekoen partetik, musu handi bat!



BERGARA
Beñat Urbina Olaso
Abenduaren 19an, 4 urte. Zorionak, Beñat! Ondo-ondo pasatu etxekuekin eta laguntxuekin zure urtebetetze eguna!



ARRASATE
Mirari Altuna Altuna
Abenduaren 20an, 3 urte. Zorionak eta patxo handi bat zure aitapuntakoren partetik! Muak!



BERGARA
Maddi Barrocal
Abenduaren 20an, 8 urte. Zorionak, Maddi! Familiaren eta lagunaren partetik.



ARETXABALETA
Gari eta Oihan Hernandez Urzelai
Abenduaren 20an, 3 urte. Zorionak, Gari eta Oihan! Hiru urtetxo! Ondo ospatu zuren urtebetetze eguna eta patxo potolo bat bixori etxeko guztien partetik. Bereziki amatxo, aitaxo eta Iزارo.



OÑATI
Claudia Vazquez Jimenez
Abenduaren 20an, 9 urte. Zorionak, printzesa! Oso ondo pasatu zure eguna. Muxu handi bat etxekoen partetik

Barkatu eragozpenak

Arazo tekniko batzuk tarteko, baliteke zorion-agurren bat kanpoan geratu izana. Hala balitz, datorren astelehenean argitaratuko genuke.

Urte askotarako!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak; hiru bide dituzu Goienaren bidez zoriontzeko:

Internet

Sar zaitetz *Goiena.net* atarian eta *Zorion agurra bidali* botoia sakatu; bete eskatutako datuak, eta bertan argitaratuko da zorion agurra, baita GOIENA paperean ere.

Posta elektronikoa

Mezua bidali *zorionagurra@goiena.com* helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, herria, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua.

Ordezkaritzak

Etor zaitetz Goienaren ordezkariaren batera.

Egubakoitzeko 11:00ak arte jasotako zorion agurrak bakarrik iragarriko ditugu.

Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.

JAIOTAKOAK



Gaizke Blanco Saez de Maturana

Elgeta. 3,360 kilo. Abenduaren 11n. Gurasoak: Maite eta Salva. Argazkian, Gaizke, sehaskan lo.



Khadidja Boumaza

Aretxabaleta. Abenduaren 10ean. Gurasoak: Madani eta Amel. Argazkian, Khadija, aitarekin.



Amets Seguroa Badiola

Bergara. 3 kilo. Abenduaren 13an. Gurasoak: Ainara eta Ekain. Argazkian, Amets, aitarekin.



Irati Egaña Rodriguez

Oñati. 3,580 kilo. Abenduaren 12an. Gurasoak: Idoia eta Asier. Argazkian, Irati, aitarekin.



Alazne Pia Otermin Gualpa

Andoain. 3,020 kilo. Abenduaren 4an. Gurasoak: Anatalia eta Aitor. Argazkian, Alazne Pia, gurasoekin.



June Arostegi Cobos

Gasteiz. 2,750 kilo. Abenduaren 7an. Gurasoak: Noemí eta Iker. Argazkian, June, aitarekin.



Oihan Elorza Zabala

Oñati. 2,950 kilo. Abenduaren 6an. Gurasoak: Iratxe eta Iñaki. Argazkian, Oihan, sehaskan lo.



Aitana Gomez Sanchez

Angiozarren. 3,360 kilo. Abenduaren 10ean. Gurasoak: Eli eta Alberto. Argazkian, Aitana, gurasoekin.

Eroski hipermerkatuaren partetik, zorionak jaioberriei eta gurasoei

Eroskik, zuen lehen beharretarako, **10 euroko bonua*** egingo dizue opari Goiena Klubeko bazkide zaretenoi.

Arrasateko hipermerkatua
EROSKI zurekin

Musakola 11 ARRASATE Tel.: 943 71 10 30

* Debagoieneko ospitalean jaiotzen direnentzat

DENBORA-PASA

HITZ GEZIDUNAK

	Argizagiak	Izanak	Zintzurra
	Izuti	* Antzuolako auzoa	Burdinola
	Larrua		
Setatu	Pl. fruitu mota		
Ez da egia	Kitatzeke dago		
			Bokala
Gobernu era			Ez du ikusten
Sahatsa, zumea			
		Kontso-nantea	Noren atzizkia
		Osmioa	
Tona, labur-labur	Kontso-nantea	Jateko gogo	
Zurtza denaren egoera	Röntgen	Kontso-nantea	

BILA-BILA 7

Bila itzazu zazpi ezberdintasun bi irudien artean.



SOLUZIOAK

N	U	S	V	Z	T	R	U	Z
E	S	O	G	T	T	T	T	T
T	A	K	I	R	A	R	Z	T
A	V	K	R	A	N	O	M	T
R	A	R	A	U	R	A	G	E
K	A	V	A	N	T	A	T	A
A	V	A	L	Z	A	V	A	T
R	O	R	I	Z	K	I	I	T
T	T	T	T	T	T	T	T	T

E	A	T	C	M	D	O	A	E
T	R	P	E	R	S	I	E	R
F	B	S	U	A	U	F	D	L
J	O	S	D	V	B	J	A	
A	R	X	I	N	E	R	A	T
U	K	A	T	I	A	S	U	L
E	H	A	N	A	T	M	A	E
Z	E	S	L	E	S	A	Z	
A	D	E	A	B	S	U	T	

1	4	2	8	5	6	7	9	3
7	3	6	9	2	4	8	1	5
8	5	9	1	7	3	2	4	6
2	6	4	7	3	5	9	8	1
5	7	8	2	1	9	6	3	4
3	9	1	4	6	8	5	2	7
9	8	3	5	4	7	1	6	2
4	2	5	6	8	1	3	7	9
6	1	7	3	9	2	4	5	8

SUDOKUA

	1				4	5	
	2					7	9
	8			7		6	
3		4			5	2	
		8	2		6		4
			7				
				3			
7				2			
		8		6		9	3

HIZKI SALDA

Topa itzazu lpar Amerikako bost hizkuntza

A	D	E	A	E	B	S	U	T
I	N	G	E	L	E	S	A	Z
K	H	A	N	A	T	M	A	E
O	K	A	T	I	A	S	U	L
R	T	X	I	N	E	R	A	T
E	O	U	S	D	V	B	J	A
E	B	S	U	A	U	F	D	L
R	P	E	R	S	I	E	R	A
A	A	T	C	M	D	O	A	E

EZETZ IGARRI!

Badauzka basoak,
baina ez dauka arbolarik.
Badauzka ibaiak,
baina ez urik.
Badauzka hiriak,
baina ez dauka eraikinik.
Zer da?



Ezetza igarri!
Mapa.

AI, ENE!

Dutxan egarrituz gero, garagardoa eskura

Lantzean behin denok hartu ohi ditugun dutxa luze horietan egarritzen bazara, ur beroaren partez, hemen konponbidea. www.nopuedocreer.com



AHOBERO

"Ez zait dirua gustatzen. Zatarra da eta arazoak besterik ez ditu ekartzen".

CRISTINA TARREGA | TELEBISTAKO AURKZELEA

"Tira, gustatzen zait jaten ematen didalako, baina batzutan hippya bihurtu eta nire baratzea lantzerantz joango nintzateke" gaineratzen du Tarregak, dotore jantzita agertzen den argazkiak dituen elkarrizketan. Seguru batek baino gehiagok animatuko duela horretara. www.kelisto.es

EGURALDIA



Hegoaldeko haizeak indarra hartuko du astelehenean. Giroa eguzkitsua izango da. euskalmet.net

ASTELEHENKOA

goiena

2013-12-16

HAMARREKOA

Bernardo Atxaga 2007ko abuztutik 2008ko ekainera arte AEBtan bizi izan zen asteasuarra eta orduan hasi zen idazten argitaratu berri duen 'Nevadako egunak' liburua, 150 piezaz osatutako puzzlea | TXOMIN MADINA

"Idatzi ditudan liburu guztietatik aldatuko nuke zerbait"

1. Liburua aurkeztu zenuenetik zenbatgarren elkarrizketa da hau? Hirugarrena izango da. Aurkezpen egunean dira gehienak, gero bakan-tzen doaz. Gero eta lan ederragoa zait idaztea, baina promozioak-eta ahalik eta gutxien egiten ditut; espero dut urte batzuetara uztea.

2. Liburua kronika gisa hasi eta nobela gisa bukatzen da. Nahita? Idazkerak eroan nau horretara, baina hasieratik nuen pieza denek azpiko lotura izateko gogo. Bob Earl pertsonaiak liburu osoa zeharkatzen du. Kronika zipriztinak daude, baina pertsonaiekin egia eta edertasun gehiago lor ditzakezu; zure manuak eurengan proiektatu eta testuari sakontasuna eman.

3. 2007an idazten hasi arren, azken atala orain gutxi bukatu duzu. Idazketa piezaz pieza izan da. Bi gauza egin zaizkit zailenak: liburuak batasuna izan dezan piezak aukeratzea; eta azpiko lotura egingo duten sekuentziak sortzea.

4. Liburuaz gain, zer gehiago atara zenuen Renoko esperientziatik? Leku guztietatik ikasten dut; akaso eskolako maistra baten semea naizelako... Ikasi ez informazioa bakarrik, baita zure bizitza txukundu eta zuzenketa egiten ere; hori ere egin nuen han.

5. Idazle metodikoa edo kaotikoa zara? Euskal Herrian *rara avis* bat naiz, idazle profesionala eta nahi eta nahi ez diziplinatua izan behar dut.



AGM

MAKILA MAGIKOA BANEUKA...

"Euskara, gehiengo baten hizkuntza"

"Makila horrekin, ziri horrekin, galaxia bat egingo nuke. Eman dezagun bertan 5.000 milioi bizilagun daudela, denak euskaldunak, lapurtera ukituarekin; eta gurekin konexioan jarriko nituzke. Benetako gogoia dut euskara ez izateko gutxiengo baten hizkuntza, gehiengo batena baizik".

6. Noiz pentsatu zenuen: "Bai, idaztetik bizi naiteke"?

Gaztea nintzela erraza zen lana utzi eta beste bat bilatzea. Gustatu barik Ekonomia ikasi eta 28 urterekin, irakasle nintzela, utzi nuen. Hogei urtez nahiko pobrea izan nintzen, kintako ekonomilarietara elkartzean lotsa ere pasatzen nuen. Baina idaztea nuen afizio handiena, eta afizioduna ondo bizi da beti.

7. Arrakasta izan izana nora arte da oztopo proiektu bati ekiteko?

Ez dakit. Arrakastarekin lagun berriak datozkizu, etsai berriak ere bai. Nabarmenez, etxetik kanpo ere ez duzu askatasun gehiegi; bere horretan onartu behar da.

8. Zure zein liburutatik aldatuko zenuke zerbait?

Guztietatik. Niretzat *Sara izeneko gizona*-k grazia handia du, baina lehen orriak hitzaurre gisa jarriko nituzke. Baina amurrainak joan eta gero, alferrik da saiatzea.

9. Joseba Irazuri galdera: erraza da Bernardo Atxaga izatea?

Geografikoki bereizten ditut: bizi naizen herrian eta jaiotzean Joseba edo Joseba naiz; erosoago bizi naiz horrela. Bernardo izanda, bestelako galderak egin eta bestelako eginkizunak ematen dizkirate.

10. Sekulako imajinatuko ez genezakeen afiziorik aitortzekotan...

Pilota. Jubeniletan, Gipuzkoako txapelketako finala galdu nuen gero profesionala izan zen Salbidearen aurka. Pilota ulertu ere egiten dut.

BIHARAMUNA

ITXARO ARTOLA



Keinuzko ganorak?

Zapatuan *Ganorazko keinuak* egiteko aukera izan genuen Arrasaten. Plaza bete iradokizun bizimodu sostengarri baten aldeko jarrera aktiboa har dezagun. Ekimena txalagarria iruditu zait. Izenak, ordea, eman dit zer pentsatua. Ez ote den kontraesankorra helburuekiko. Moralista bezain tolerantetia. Batetik, "ganoraz" jokatzeko dioskulako. Eta buru erretxin honek esaten dit jendearen hautua moralkeria merkezu jutzatzea dela hori. Eraldaketarako gogo kontzientea pizteko kaltegarria. Bestetik, "keinuak" egiteko. Asmoa edo borondatea izan daitekeena. Bai. Baina baita itxurazko imintzio hutsa ere. Eta kolpetik datorkidan galdera da azoka hauek ez ote ditugun horrelaxe barneratuko; sozialki polit jarduteko hitzordu puntual gisa; etxeratu orduko globalizazioaren altzo goxoan kulunkatzen jarraitzeko pilula lasaigarri gisa. Horrela, nekez helduko ginatete Arrasate bizi, solidario eta sanoago batera. Benetan nahi nuke oker egon. Belaunaldi berrietan aurrekook hartu ez ditugun ohitura batzuk erretzen joateko hazi izatea herenegungoa bezalakoak. Baina, uf...Durango eta Gabonetako esperpentoen artean dena lanbrotuta ikusten dut.



FRUTA-DENDA BERRIA ARRASATEN!

Abenduaren 17an irekiko dugu, 09:00etan!

Zatoz!

Olarte kalea 1. Arrasate.

GABONETAKO ESKAINTZA

Abenduaren 16tik 21era, 20 € baino gehiagoko erosketa egiten baduzu, Gabonetako piña zoragarri bat jasoko duzu opari!



sustrai
FRUTA-DENDA

Olarte kalea 1. Arrasate.